

PEDAGOGIA/PEDAGOGÍA

Saioa URRIZA LARRAYOZ

**KOREOGRAFIA ETA DANTZA:
PIXOIHALAREN ALDAKETA HAUR
ESKOLAN/
DANZA Y COREOGRAFÍA : EL
CAMBIO DE PAÑAL EN LA
ESCUELA INFANTIL**

TFG/GBL 2013



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Gizea eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Infantil
/
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**KOREOGRAFIA ETA DANTZA:
PIXOIHALAREN ALDAKETA HAUR ESKOLAN/
DANZA Y COREOGRAFÍA: EL CAMBIO DE
PAÑAL EN LA ESCUELA INFANTIL**

Saioa URRIZA LARRAYOZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Saioa URRIZA LARRAYOZ

Izenburua / Título

Koreografia eta dantzak: pixoihalaren aldaketa haur eskolan/
Danza y coreografía: el cambio de pañal en la escuela infantil

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Alfredo HOYUELOS PLANILLO

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia/ Psicología y pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarritzko prestakuntzako modulua/ak bidea eman dit teoriaren inguruko kontzeptu batzuk kokatzeko. Horren inguruan, psikologia ikasgaietako kontzeptuak erabili ditut, besteak beste: haurren garapen ebolutiboaren oinarriak, teknika psikologiko batzuk, etab. Horretaz gain, haur eskolaren antolaketaren ikasgaiko kontzeptu eta testu batzuk erabili ditut, lan enpiriko honen gaiarekin zuzeneko erlazioa dutelako.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak bidea eman dit plastika didaktikaren inguruko ikasgaiarekin erlazionatutako kontzeptuak kokatzeko. Hain zuzen ere, lan honetan ageri den pedagogia, ikasgai honetako metodologia berberean oinarritzen baita.

Halaber, Practicum modulua/ak balio izan zait hausnarketa garatzeko lan honetan. Horrela, praktikan ikusitakoa eta teoriaren inguruan konparaketa bat egiteko erabili dut. Horrekin batera, praktiketan ikusitako metodologia edota teknika batzuen inguruan sakondu dut lan hau burutzerako orduan.

Laburpena

Pixoihalaren aldaketa Haur Eskoletako jarduera ohikoa eta egunerokoa da eta honen inguruko hausnarketa garatuko dut lan honetan, hezkuntza jarduera garrantzitsua iruditzen zait eta. Gaiaren inguruan sakontzeko, E. Pikler pediatriaren teorian oinarrituko naiz, momentu honi sekulako garrantzia eman baitzion. Teoria honen eta egindako lan enpirikoan ikusi dudanaren arabera, pixoihalaren aldaketa egokiaren bidez, heldu eta haurraren arteko erlazio afektibo sakona sortu eta finkatu egiten da, eta helduak helburu hori izan beharko du, haurraren garapen motor, psikologiko eta emozionala baimentzeko.

Horretarako, momentu berezi horretan parte hartzen duten hainbat esparru azalduko ditut, bakoitza nola, noiz eta zer modutan erabiltzen den hausnartuz. Kontuan hartu behar diren oinarritzko kontzeptuak dira, besteak beste: haurraren mugimendu askeak, autonomia, menpekotasuna, inizatiba, espazioa, denbora, begirada, keinuak, hitzak eta gorputza jarrerak. Beraz, horien inguruko hurbilpen teorikoa eta haur eskolan garatutako lan enpirikoan oinarritutako hausnarketa egingo dut lan honetan.

Hitz gakoak: pixoihalaren aldaketa; hezitzaile eta haurraren arteko komunikazioa; mugimendu askatasuna; profesionaltasuna; Emmi Pikler.

Resumen

El Cambio de pañal es una actividad diaria y usual en la Escuela Infantil, y me ha parecido importante reflexionar sobre ello entendiéndolo como actividad educativa. Para profundizar en el tema, me he basado en la teoría de Emmi Pikler, ya que le concede una especial importancia a este momento educativo. Teniendo en cuenta estas ideas y lo que he podido observar en la práctica, si el cambio de pañal se hace de la manera adecuada, servirá para establecer o consolidar la relación afectiva entre educador/a y niño/a. Así que el adulto tendrá que tener esto en cuenta, de cara a favorecer el desarrollo motor, psicológico y emocional del niño o niña.

En este sentido, los conceptos que tendremos que tener en cuenta por su relevancia en el cambio de pañal serán: el movimiento libre, autonomía, dependencia, espacio, tiempo, miradas, gestos, palabras y actitudes corporales. En conclusión, en este

trabajo se hace un acercamiento teórico a cada uno de esos aspectos, y una reflexión sobre cada uno de ellos.

Palabras clave: cambio de pañal; comunicación entre educador/a y niño/a; libertad de movimiento; profesionalidad; Emmi Pikler.

Abstract

The nappy changing is a very usual activity in Infant Education. In my opinion, we should think about it as an educational activity. I have based my research on Emmi Pikler's theory, because she attributes a lot of importance to this moment.

To make this work, I have taken into account those ideas as well as the results of the observation work I have done. Concerning to this, changing the nappy is an appropriate moment to make or consolidate the relationship between the adult and the child. Therefore, adult would have to take care about this, because his main aim has to be the physical, cognitive and emotional development of children.

Consequently, we have to take into account some aspects related to change the nappy, specifically: free movement, autonomy, dependence, space, time, gaze, gestures, words and postures or body attitudes. As a result, in this research work I'm going to speak about them, taking into account Emmi Pikler's theory and the results of my observations.

Keywords: Nappy changing; communication between adult and child; free movement; professionalism; Emmi Pikler.

AURKIBIDEA/ INDICE

1. Aurrekariak, helburuak eta aztergaiak/ Antecedentes, objetivos y cuestiones 1.	1
2. Inguraketa teorikoa 2.	7
2.1. Oinarrizko kontzeptu batzuk 2.1.	7
2.1.1. Oinarrizko printzipioak 2.1.1.	7
2.1.2. Haurraren garapen motorraren inguruko oinarrizko ideiak 2.1.2.	9
2.1.3. Autonomia eta menpekotasuna 2.1.3.	14
2.2. Zaintza pertsonalak 2.2.	16
2.2.1. Hezitzaile eta haurraren arteko erlazioa/ harremana pixoialaren aldaketan 2.2.1.	17
2.2.1.1. Mugimendu askatasuna 2.2.1.1.	19
2.2.1.2. Keinuak: hezitzailearen eskua eta gorputza 2.2.1.2.	20
2.2.1.3. Komunikazioa : begirada eta hitza 2.2.1.3.	23
2.2.2. Espazioaren antolaketa 2.2.2.	24
3. Materialak eta metodoak 3.	27
3.1. Metodologia 3.1.	27
3.2. Lan enpirikoa 3.2.	28
4. Emaitzak eta diskusioa 4.	35
4.1. Elkarriketak 4.1.	35
4.2. Behaketa zuzena : bideo eta argazkien analisisa 4.2.	41
5. Conclusiones/ Ondorioak 5.	
6. Erreferentziak 6.	

1. ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES/ AURREKARIAK, HELBURUAK ETA AZTERGAIK 1

Para empezar me gustaría justificar por qué he elegido este tema. Son muchos los temas trabajados a lo largo de estos cuatro años de carrera, siendo difícil seleccionar uno para desarrollar. En mi caso, quería trabajar en un tema desconocido para mí, que me sirviera para profundizar, aprender y reflexionar sobre algo que se me hubiera quedado pendiente. Por eso he decidido profundizar en el cambio de pañal. Por una parte, porque es un tema complejo, que merece ser estudiado. Por otro lado, creo que éste es un tema muy desvalorizado y desconocido, tanto en la sociedad en general, como en el ámbito educativo.

A lo largo de estos cuatro años hemos asistido a numerosas clases de psicología y pedagogía, y solo en una de ellas nos hemos centrado en el ciclo 0-3 de Educación Infantil, además de no haber tenido opción a hacer las prácticas en ese primer ciclo. Teniendo en cuenta que vamos a ser profesionales de Educación Infantil, me parece necesario recibir formación para ese ámbito. De todas maneras, no creo que eso sea a causa de la casualidad. La Educación Infantil es todavía una etapa desprestigiada en la sociedad, tanto el primer como el segundo ciclo. Tanto es así que muchos piensan que el objetivo de esta etapa es preparar a los niños y niñas para la Educación Primaria, y por eso es usual oír cómo la gente lo llama “pre-escolar”, ya que no reparan en su identidad educativa. Y si esto es así en el segundo ciclo, más grave es la concepción acerca del primero (0-3). En mi opinión, hay un desconocimiento grande en este sentido, y se entiende como una educación de “segundo nivel”. El lenguaje refleja claramente esta idea, ya que a las Escuelas Infantiles se les suele llamar guarderías, con lo que se entiende que son lugares de “guardar o cuidar” al niño, haciendo referencia solo a un objetivo asistencial o de conciliación.

Por todo ello he decidido centrar mi trabajo en defender y argumentar la tarea educativa tan importante que se hace en estos centros. Por una parte, para demostrar que el objetivo predominante es educar, y no el asistencialismo. Y creo que es

importante que la sociedad empiece a aceptarlo como tal. En este contexto, la formación de las educadoras y educadores cobra especial relevancia.

Cada vez está más claro que los niños y las niñas nacen con capacidades cognitivas, motoras y emocionales. La Escuela Infantil tiene que ser un espacio donde puedan desarrollar y expresar esas capacidades, y no solo un lugar que cumpla con las necesidades de los padres. Esta etapa educativa tiene que tener como principal objetivo educar, y para defender la identidad propia de la Escuela Infantil, me gustaría comentar el artículo de Alfredo Hoyuelos (Hoyuelos, 2003).

En el artículo se presentan distintas afirmaciones acerca de la Educación Infantil en el primer ciclo. Para empezar, nadie pone ya en duda que los niños nacen con capacidades cognitiva, motoras, afectivas y sociales. Esto conlleva que los niños y niñas tienen derecho a espacios que aseguren el desarrollo de las mismas. Teniendo eso en cuenta, ¿cómo tienen que ser los entornos y espacios, para que permitan el desarrollo? Siguiendo esta cuestión, tendríamos que reflexionar acerca de las condiciones de calidad necesarias para ese fin, y para responder adecuadamente a las necesidades de los niños y niñas.

Además de esto, está claro que hoy en día son las familias, y más concretamente las mujeres las que cumplen con la falta de las instituciones. Hoy en día, son algunos abuelos y abuelas las que cumplen con el deber y la función de las mismas. Y es que las instituciones son las que deberían impulsar la educación infantil gratuita y universal. Hace unos años, no se cumplía esto porque había más demanda que plazas. En cambio ahora, con la subida de tasas, las familias no pueden permitírselo, y sobran plazas en las Escuelas Infantiles. En mi opinión, es labor de las instituciones dar respuesta a las necesidades y derechos de familias y niños y niñas. Con esto no quiero decir que haya que escolarizar a todos en esta etapa, sino que habría que asegurar las posibilidades para ello.

La Educación Infantil tiene que ser complementaria a la educación en el hogar, teniendo en cuenta también que todas las familias no son contextos adecuados o apropiados para el desarrollo.

Por otro lado, siendo la Educación Infantil la base del sistema educativo, su objetivo será crear personas para el presente. No hay que tomarlo como una necesidad social, sino como un derecho del niño, que le ayudará a desarrollarse. Como he dicho, es bastante claro el poco prestigio social de esta etapa educativa, y esto está directamente relacionado con la concepción que tiene la sociedad acerca de la niñez. En mi opinión, en esta sociedad los niños y ancianos son considerados y tratados como débiles, y eso conlleva en ocasiones la poca profesionalización de los y las trabajadoras en este ámbito, así como la poca adecuación de los espacios. Y eso hay que cambiarlo. Continuando con el tema, Alfredo Hoyuelos reivindica la identidad propia de la escuela Infantil, teniendo en cuenta los siguientes aspectos, que pueden ponerla en peligro:

- Asistencialismo. Como he dicho anteriormente, no se tiene que entender solo como un lugar en el que se cuida, sino que además, se hace una labor educativa compleja.
- Lo que Malaguzzi calificó como “Pedagogía Pediátrica”. Pone el énfasis solamente en la salud física del niño o niña, cuando es importante subrayar la identidad educativa.
- Instruccionismo. Esto se entiende como una preparación del niño o niña para la siguiente etapa educativa. Aquí se sitúa lo que algunos trabajadores nombran “pre-cálculo”, “pre-lectura”, “pre-escritura”, etc. En este sentido, se niega la cultura y identidad de la infancia, suprimiéndolas por un currículum impuesto desde arriba. Los adultos precisan los objetivos, contenidos y actividades, sin tener en cuenta los gustos, deseos y necesidades de los niños y niñas.
- Estimulación temprana. Se sitúa dentro del sistema de producción, y busca la aprobación de las familias mediante el uso de fichas, cuadernos y otras producciones escolares, sin tener en cuenta, en ningún momento, los procesos y la cultura de la infancia.
- Maternidad. Se entiende la educación infantil como una sustitución de la madre, y se basa exclusivamente en las emociones, queriendo suprimir o relajar el trauma que puede suponer la separación. Es necesario trabajar el

ámbito emocional, pero no considerándolo como objetivo unidireccional, sino como motor de viaje.

Hay que tener en cuenta la identidad social y educativa de la escuela infantil, para reorganizar la estructura atendiendo a esos dos principios.

Teniendo todo esto en cuenta, queda claro que hay que defender la importancia y la identidad de la escuela infantil. Para ello, en mi opinión es importante la implicación y concienciación de toda la sociedad (familias, instituciones, profesionales...), para favorecer la formación de las y los profesionales, para formar otra concepción sobre la infancia, y así asegurar la calidad educativa.

Por otro lado, y más concretamente, este trabajo se centrará en el cambio de pañal y su importancia educativa. En algunos ámbitos educativos está absolutamente aceptado, pero entre otros muchos profesionales, y en la sociedad en general es un momento muy infravalorado en este sentido, tomándolo únicamente como un cuidado físico sin relevancia educativa. Por lo tanto, me ha parecido muy importante profundizar en el tema, porque todavía es un algo novedoso, y en la etapa 0-3 es especialmente importante.

Por otra parte, he profundizado en la teoría de Emmi Pikler. Como explicaré más detalladamente más adelante, esta pediatra reivindicó la importancia del cambio de pañal en la educación infantil, y su método se está aplicando en algunas de las Escuelas Infantiles Municipales de Pamplona. Por eso, en las próximas páginas desarrollaré las ideas que propuso, y explicaré y profundizaré en el trabajo empírico realizado. Entendiendo el cambio de pañal no como un momento mecánico ni rutinario, sino reafirmando su valor educativo. Y es que es un momento privilegiado para la comunicación y el diálogo entre educadoras y niños y niñas. Y a partir de eso, se formará el vínculo afectivo entre estas dos partes.

Además, este momento educativo agrupa muchos aspectos sobre los que reflexionar. Para mí, uno de los que más importancia tiene es el de cómo se forma la relación afectiva entre educadora y niño/a, y es que es ahí donde se sitúan interdependientemente, la dependencia, autonomía, libertad, afectividad, miradas, gestos, el movimiento del niño, la iniciativa, actividad... Por todo esto es labor de los

profesionales formar un vínculo seguro, afectivo y profundo con el niño o la niña, respetando al niño tal y como es, brindándole la libertad, pero también la seguridad y la confianza. Para ello, tenemos que tener en cuenta todas las actividades desarrolladas, porque en todas ellas se forma el vínculo, y en todas se está desarrollando el niño o la niña. Además, el momento del cambio de pañal se convierte en un momento especial, donde se forma una relación especial e íntima entre la educadora y el niño o niña, tal y como explicaré más adelante.

Por todo ello, creo que es necesario profundizar en el cambio de pañal y en todos los aspectos que adquieren relevancia, haciendo una observación crítica, para luego reflexionar acerca de ello. En conclusión, mi trabajo se centrará en primer momento en hacer un acercamiento teórico al tema, en segundo lugar en el trabajo empírico (mediante entrevistas y observaciones directas) y por último desarrollaré las conclusiones o reflexiones finales.

2. INGURAKETA TEORIKOA 2

Hasteko, Emmi Piklerren teoriaren inguruan sakondu nahiko nuke, beraren ideietan oinarrituko naizelako hausnarketa egiteko. Beraz, ideien inguruan aukeraketa bat egin eta hurrengo puntu hauek zehaztea erabaki dut. Hasteko, bere pedagogiaren inguruko oinarritzko printzipioak kokatu eta haurraren garapenaren inguruko oinarritzko ideia batzuk aurkeztuko ditut, autonomia eta menpekotasunaren arteko harremana zehaztuz. Ondoren, zaintza pertsonalen gaien sakonduko dut, horren barnean kokatzen baita pixoihalaren aldaketa. Horren barne, haurra eta helduaren arteko erlazioaren nondik norakoak kokatu eta espazioaren esparrua azalduko dut.

2.1. Oinarritzko kontzeptu batzuk 2.1

2.1.1. Oinarritzko printzipioak 2.1.1

Atal honetan, Emmi Piklerrek zehaztutako oinarritzko printzipio batzuk azalduko ditut, hezkuntza esparru batean beharrezkoak direnak. Emmi Pikler (1902-1984) Austrian jaiotako pediatra izan zen, bere lanbide profesionala Hungarian garatu zuena. Familiako pediatra bezala aritu zen, eta 30 urte baino gehiago egon zen Loczy institutoko zuzendari moduan, Budapestean. Loczy-n aurrera eramandako hezkuntza eredua haur hezkuntzako erreferente bihurtu da, eta hurrengo orrietan bertan aurrera eramandako pedagogiaren puntu nagusiak aurkeztuko ditut.

Appel eta Daviden hitzetan, (David & Appell, 2010) haurren eguneroko bizitzako aspektu guztiak hurrengo printzipio hauetan oinarritzen dira:

a) Jarduera autonomoaren balioa

Haur bat hezteko garaian, ariketa autonomoarekiko gogoia garatzea beharrezkoa da. Horren bidez, haurrek garapen motorra garatu eta garapen psikologikoaren oinarri izango diren esperientziak bizi izango ditu, eta poztasunerako bide izango da.

Horregatik hurrei baldintza egokiak bermatu behar zaizkie, jarduera autonomoarekiko atsegina haien kabuz garatu ahal izateko. Hori gertatu ahal izateko, aktibitatea haurrarengan sortu behar da, eta bere barneko motibazioak eman beharko dio jarraikortasuna. Horretarako, mugitzeko askatasun osoa baimendu beharko zaio, arriskuez babesten zaien bitartean, hori bai. Askatasun hori errespetatzeko, helduak ez

du haurraren jardueretan modu aktiboan parte hartuko, ez du estimulatuko, ez lagundu eta ez irakatsiko. Beste modu batez egiten bada, haurra pasibotasunean eta menpekotasunean murgil daiteke.

Hala eta guztiz ere, haurren jarduera motorra estimulatuko du etengabe, zeharka, 3 moduz: a) egoera jarraikortasun eta material anitzaren aurrean haurra kokatuz; b) haurraren interesen arabera, gaitasun motorren bereganatze erritmoa errespetatuz (haurra inoiz ez da jarri behar oraindik bere kabuz kontrolatzen ez duen postura batean), eta c) ahozko deskribapenen bitartez (judizio negatibo edo positiborik gabe), haurrak bere gaitasunez kontziente izaten lagunduko duena.

b) Erlazio afektibo sakon baten garrantzia.

Honek hainbeste garrantzia izanik, heldu erreferente kopurua mugatzen da Loczyn. Bestalde, heldua benetako erlazio batean inplikatzeko da, baina haurraren bere afektibitatea eta desioak kokatu gabe. Erlazio hau ematen da, gehien bat, eguneroko arreta pertsonaleko jardueretan, ahalik eta indibidualenak direnak, amatasun zaintzen bidez (hezitzaileak amaren rola hartu gabe), aldeztu aurretik zehaztutakoak. Piklerrek esan zuen moduan: “amak haurra zaintzen du maite duelako. Hezitzaileak haurra maite du zaintzen duelako.”

Zaintza pertsonaleko jarduera hauen artean, haurra ez da inoiz bakarrik egongo, heldua ikus eta entzuteko moduko distantzia batera dago, haurraren adierazpenei adi, eta hau erlazio-egoera bezala ulertzen da. Modu honetan, haurrarekin erlazio zuzena eta hurbila lortzen da zaintza pertsonaleko momentuetan (bainua, pixoihalaren aldaketa, bazkaria eman, etab.), eta zeharkakoa eta distantzia batekin beste jarduera orotan.

Modu honetan, erlazio erreal eta beroa sortzen da, haurraren eskaera afektiboa gutxitzen delarik. Azken finean, ez zaio eman behar zaiona baino gehiago ziurtatu behar, baina ematen zaiona iraunkorra eta ziurra izan beharko du.

c) Haurrak bere burua eta inguruarengan kontzientzia hartzea baimentzea.

Denboran gertaerek duten erregulartasuna, eta espazioan egoerek duten egonkortasuna kontzientzia hartze hau baldintzatzen duten aspektuen artean daude. Baina gehien bat zaintza pertsonaleko momentuetan haurrak ulertzen du nor den

bera, zer gertatzen zaion, nor arduratzen den berataz, zein den bere ingurua, eta zer gertatuko zaion ondoren edo momentu horretan. Honek suposatzen du haurra subjektu bezala tratatu behar dela, eta ez objektu hutsa bezala. Horrela, haurra parte hartzeko gaitasuna, etorkizunean erabakiak hartzeko eta autonomiaz jokatzeko prestatzen da.

d) Osasun fisiko onaren garrantzia, aurreko printzipioak gauzatzeko beharrezkoa dena, eta baita bere emaitza delarik.

Haurren osasun fisikoa kontuan hartzen da, printzipio naturistetan oinarrituz, eta kanpoaldean bizitza ahalik eta gehien egitea da proiektu honen ezaugarrietako bat.

2.1.2. Haurraren garapen motorraren inguruko oinarrizko ideiak 2.1.2

Behin oinarrizko kontzeptuak ezagututa, Piklerren teorian garrantzi handiko gaia azalduko dut. Bere ustez, haurraren inizatiba eta mugimendu autonomoak errespetatuz, haurraren garapena modu naturalean emango da. Ideia hau izan zen bere teorian oinarrietako bat, eta pixoihalaren aldaketan kontuan hartu beharreko ideia da. Beraz, ondorengo lerroetan modu zabalagoan azaltzen saiatuko naiz.

Haurraren garapen integrala edota orokorra (sozial, afektibo, psikologiko eta motorra) bermatzeko, haurra errespetatzea bihurtzen da oinarri. Magda Gerberrek (Gerver, 2004), dioen moduan eta nik ere uste dudanez, haurrak errespetuarekin tratatzen baditugu, bere buruarengan konfiantza izatea eta zentzuz jokatzeko lortuko dugu, eta horretan oinarrituko da garapen prozesua. Horren bidez, haurrak munduarekin erlaxionatzen eta horretan konfiantza izaten ikasiko du. E. Piklerrek bere haur txikiekin zuzenean hitz egiten zuen, egingo zuena azalduz, egin baino lehen. Gerberrek dioen moduan, bere teoria oinarritzen da haurrak behatzean, eta inoiz ez itxaropenak jartzen haurrek egin ezin zuten zerbaitetan. Adin horretan, bizitzako oinarri nagusiak hurrengoak dira: konfiantza, pazientzia eta baikortasuna, eta adin honetan garatzen dira. Bestalde, haurraren garapenean laguntzeko, helduaren papera bi aspektutan zentratuko da nagusiki: enpatia eta behaketa. Autore honen helburua da gurasoak erlaxatzea, gehiago behatuz eta parte hartzea gutxituz, haurrak diren bezala maitatzea eta bere jokatzeko modua ulertu eta errespetatzea.

Honekin lotuta, haurrak errespetatzea haiekiko distantzia mantentzea da, mugak ezartzearekin batera, eta sentimenduei arreta jarritz. Filosofia honek oinarrizko printzipio batzuk jarraitzen ditu, ondoren azalduko ditudanak:

- Konfiantza: haurraren gaitasunetan sinestea, haurra behatuz lortzen dena.
- Testuingurua: ziurra izan behar du bere ziurtasunerako, eta baita haurraren ziurtasun zentzuarentzat.
- Oztoporik gabeko jolasa: haurren jolasak errespetatzean datza, ulertuz ez dutela helduaren esku hartzerik behar. Bestela, askotan helduaren interesak haurrarenak baino balio gehiago hartuko du.
- Miatu eta esperimentatzeko askatasuna: berdinen arteko taldeen balioa berresten du, batak bestearekin ikasi eta mugak ezartzen direlako. Hau askatasun giro batean gauzatzen delarik.
- Parte hartzaile aktiboa: haurraren parte hartzea sustatzean eta eskatzean datza, elkarrizketaren bidez lortu eta hori bihurtuko delarik.
- Behaketa sentikorra: askotan errazagoa da haurraren jardueran parte hartzea behatzera gelditu baino. Baina horretatik erantzunak sortu egiten dira, haurrak ulertzeko bide izango dena. Horren bidez, haurra antzeman eta onartzea lortu behar da, haurraren garapen maila errespetatuz.
- Trinkotasuna: heldu bezala muga batzuk zehaztea beharrezkoa da, honen bidez haurra ziur sentituko delarik. Muga hauek ez dira inposatuak eta aginteen bidezkoak izango.

Teoria honen bidez, gurasoak lasaitu behar dira, haurrak disfrutatu, haien erritmoak eta mugimenduak errespetatuz, eta bere kabuz gatazkak konpontzera animatuz. Piklerrek esaten zuen moduan: “helduak parte hartzen ez badu, haurra biratzen, arrastraka ibiltzen, lau hanketan jartzen, gelditzen, esertzen eta oinez ikasiko du inolako arazorik gabe. Hau ez da presioarekin lortuko, baizik eta bere inizatibaren bidez.”

Bestalde, Piklerrekin egon ziren umeen deskribapena egiten du autoreak, bere sentimendu, adimen eta gorputzarekiko errespetuarekin hazi direnez, atseginak, konfiantzadunak, aktiboak eta “ni”-aren kontzeptua oso garatua dutela baieztatuz.

Honekin oso lotuta, Agnes Szanto Federrek (Szanto, 2011), garapen motorraren azterketa egin zuen hiru galdera hauek proposatuz: a) beharrezkoa da haurtxoari mugimendua irakastea, berak bere kabuz egingo lukeena baino hobe egiteko? B) agian mugimenduak berak aurkitu baino lehen irakatsi behar dizkiogu, estimulazio goiztiarraren ideiarekin jarraituz? Eta c) ez diogu mugimendua irakatsi behar, berarenganako interes eta maitasuna eskaintzea gure helburua delarik?

Honi kontrajarriz, berak beste proposamena egiten du. Alde batetik, haurra behatzea, eta bere parte hartze aktiboa errespetatzea. Haurra estimulatzea garai honetan asko egiten den jarduera da, haurraren mugimendua bultzatzeko moduak era askotakoak direlarik: modu zuzenean (bultzatuz, zutiaraziz, eramanez) edota zeharkakoan (guk nahi dugun egoeran kokatuz). Horrekin batera, espazioa ere haurra modu pasiboan egoteko prestatzen da, haurra aulki eta koltxoi biguinetan kokatuz, non ez duen gorputza mugitzeko aukerarik.

Guzti hau kontuan hartuz, E. Piklerrek garatu zuen pentsamenduaren arabera, haurrak arlo motorra garatuko du kanpoko laguntzarik jaso gabe, jaiotzetik jarduera autonomoa baimentzen bazaio, eta etapa batzuetatik igaroko da, genetikoki gertatzen direnak, eta denbora emanez, moteltasunez, gertatuko direnak.

Baldintza egokietan hezten diren haurrengan behatu daitezkeen ezaugarriak, bestalde, honakoak dira:

- Haien mugimenduak armonikoagoak dira, mugimendu behartuak jasan dituzten haurrenak baino.
- Trebetasun gehiago erakusten dute bere jarduera guztietan.
- Oreka handiagoa dute, baldartasun gutxiagorekin batera, eta zentzuzkoagoak dira.
- Jarduera motor ludiko eta jarraia izaten dute.

- Prozesuaren erregulartasunak erakusten du (haur bakoitzak pasatzen dituen tarteko aldiek gehien bat), aurretik zehaztutako programa genetiko bat jarraitzen dutela haurrek.

Ondorioz, ikasi behar dugu haurren garapena motorra aztertzerakoan, hainbat kontzeptu kontuan hartzen: erosotasuna/ erosotasun eza, trebetasun/trebetasun eza, oreka ona/oreka txarra eta konpetentzia edo bere desioen arabera jardutea.

Honetaz aparte, garapenaldiak bereganatzen dituen adina ez da garrantzitsua, baizik eta nola garatzen joaten den, eta perfektionatzen.

Gainera, ikas dezakegu ez dela oso egokia haurra zerbait egin dezan zirikatuz edo bultzatzea. Hori horrela egiten bada, haurrak mugimendua hasiko du heldua pozteko bakarrik, eta pena litzateke horretan oinarritzea haurren interes guztia.

Honekin batera, ez da onuragarria haurren mugimenduak mugatzea, nahiz eta horrek ez dakarren nahi duen guztia egin ahal izatea.

Zertan oinarritzen da, beraz, haurren garapen motorren hastapena? Haurrak adin guztietan esperimendatzeko, mugitzeko, lantzeko, jardura mantendu edota bukatzeko askatasuna izatean, horrela autonomia, jardura iraunkorra eta lehenengo konpetentzia sentimendua garatuko dituelarik. Hori gauzatuko da aurretik zehaztutako garapen programa baten barruan, non askatasun baldintzak bi modutakoak izango diren: ziurtasuna (kontuan hartuz garapen motorra eta pertzepzioa) eta muga horien barnean kokatzen diren baldintzak ahalik eta murrizte gutxiena egin beharko dute.

Honekin batera, haurrak jaiotzatik bizkar-posizioan jartzen badira, azkenean alboka jarri, buelta eman eta buruz behera jarriko dira bere garapenak baimentzen direnean. Sabeleko posizioan jartzen badira haurrak, baldarrak izaten dira, mugimendu bortitz eta desordenatuak izaten dituztelarik, eta maiz erortzen dira.

Ikuspuntu honekin bat eginez, Noemi Beneitok (Beneito, 2007) haurrak “decubito dorsal” izeneko posturan kokatzeak eragiten zuena azaldu zuen, honi esker haurrak lasaia eta adi zeudela eta komunikazio eta parte hartze handiagoa, objektuak manipulatzeko gaitasuna, ahots tonuaren aldaketa, esku eta begiaren arteko koordinazioa eta loaldian hobekuntzak zituztela ondorioztatu zuen, besteak beste.

Haurraren mugimenduen eta gorputz eskemaren garapenarekin jarraituz, Judith Falkek (Falk, 2009) haurraren goi mailako prozesuak zeintzuk diren aurkezten du, honakoa azalduz: lehenik eta behin, haurrak bere eskua aurkitzen du, hasieran horretan arreta jarriz eta ondoren esperimintatzeko erabiliz, keinuak ausazkoak izaten uzten dutelarik. Geroago oinak aurkitzen ditu, prozesu berdintsu baten bidez. Hala ere, horretan zehar, gorputzaren beste atalak ez dira finko geratzen. Posizio aldaketa, horietako batean mantentzea, edo mugitzeko aukera ezberdinak ikusteak ere ikaskuntza prozesu bat dakar haiekin, eta modu horizontaletik bertikalera igarotzea, burua mugitu edo euskarri maila gutxitzea, lorpen maila handia da haurrentzat, entsegu-akatsen bidez gertatzen dena. Noemi Beneitok (Beneito, 2012) prozesu honi asimilazio eta egokitzearen bidez ematen dela azaltzen du. Hau da, mugimenduen garapen prozesu honetan, haurrak jadanik erosotasunez egiten dituen keinuak erabiltzen ditu, ondo asimilatuak dituenak, beste batzuekin, egokitze prozesuan daudela, eta berri-berriak diren besteekin. Haur guztiek aldizkatzen edo txandakatzen dituzte ariketa berriak, menperatzen dituzten besteekin, nagusiki horiek erabiltzen dituztelarik, erabat menperatuak dituztelako. Hezitzaileok hau ulertu behar dugu prozesu hori errespetatzeko. Asimilazio eta egokitze prozesu horri ekonomia kontzeptua izendatu zaio.

Honekin bukatzeko, Beneitoren ustez, eguneroko bizitzan jarduteko haur batek behar dituen baldintzak dira:

- Behatzen ikasi.
- Objektuak erabiltzen ikasi.
- Bere gorputza modu ekonomikoan erabiltzen ikastea.
- Gertaeraren ondorioa aurreikusten ikastea.

Eta honekin batera bi euskarri beharko ditu haurrak modu autonomoan ariketak gauzatzeko: bata barnekoa (bere gorputza eta ziurtasun sentimendua) eta bestea kanpokoa (heldua, eta honek eskaintzen dizkion aukerak).

2.1.3. Autonomia eta menpekotasuna 2.1.3

Haurren garapenaren barne zeresan handia duten kontzeptuak dira bi hauek. Horrela, hauen arteko oreka bilatu behar dugu, baita pixoihalaren aldaketan ere. Bi kontzeptu hauek heldu eta haurren arteko erlazioaren barruan kokatzen diren arren, Piklerren teorian garrantzi handiko gaia da. Beraz, ondorengo lerroetan horien inguruko hausnarketa gauzatuko dut.

Honen inguruan hausnarketa sakona egiten du Anna Tardosek (Tardos, 2008), Emmi Piklerren alaba. Esaten duen bezala, gaur egun lehen haurtzaroaren inguruan oso garrantzitsuak diren kontzeptuak maitasuna, erlazioa, hurbiltasuna, lotura eta kontaktua dira. Hauek guztiek menpekotasunaren garrantzia azpimarratzen dute. Honekin batera, E. Piklerrek aztertu zuen moduan, haurren gaitasunetan konfiantza badugu eta bere jarduera autonomia baimentzen badugu, normalean uste baino askoz gauza gehiago lortuko ditu haurrak, gorputzaren jabetze handia eta inguruarekiko jakin-mina, besteak beste. Pediatraren teorian, mugimendu askea, aktibitatea, ikaskuntza autonomia, haurrak hasitako jarduera, eta geroago konpetentzia sentimendua dira oinarriko kontzeptuak, eta guztiek egiten diote erreferentzia haurren autonomiari.

Hasieran bi ikuspuntu hauek aurkakoak direla eman dezake, autonomia eta menpekotasunaren artean erabaki beharko bagenu bezala. Uste honi aurre egiteko, Tardosek azterketa egiten du.

Autonomia kontzeptuarekin sakonduz, haurrak bere barne esfortzuak erregulatzen ditu, eta bere jardueretan zehar, bere erresponsabilitatearen menpe, haurrak behatzen, aritzen, modu ekonomiko batez bere gorputza erabiltzen, ondorioak aurreikusten, mugak ikusten... oro har, ikasten ikasten du. Hau da, bere konpetentzia garatzen du.

Hala ere, guzti hau garatzeko, baldintza batzuen beharra dago. Azken finean, erlazio sakon baten beharra, ziurtasun sentimendua emango diona, ikaskuntzaren oinarri delarik. Baina helduaren paper berri honek askotan erresistentzia sortzen du, erlazioaren izaeraren aldaketa suposatzen duelako, helduak bere autoritatea eta haurra menperatzea kolokan ikusten duelako.

Esan bezala, geroago azalduko dut helduaren paperaren garrantzia, eta nolakoa izan beharko lukeen, baina orain horrekin zuzeneko zerikusia duen esparruan zentratuko naiz: autonomia eta/edo menpekotasuna. Honen inguruan galdera bat sortzen da: nola garatzen da haurraren autonomia? Zer eragin izango du horretan helduak?

Honen inguruan, Judith Falkek (Falk, 2009) autonomia jaiotzatik hasten dela aurkezten du, haurrak berak hasitako jarduera guztien bidez garatzen delarik, eta bere autonomia garatzeko beharrezkoa izango du bere konpetentzia guztien inguruko esperimendazioa. Eta horretarako, gure papera izango da gustu natural hori mantendu eta baimentzea, babestea eta bere garapena sustatzeko baldintzak eskaintzea.

Honekin jarraituz, autonomia ez da helburu bat. Eta ez du benetako baliorik haurrak ez badu gogoz hartzen gauzak bere kabuz egitea, eta berarentzat ez bada erabilgarria muga batzuen barruan. Azken finean, haurraren autonomiak eta inizatibak interes handia du hiru erlazio-esparruen barne: bere buruarekin, inguruan duen munduarekin, eta erlazio interpersonalekin. Horrela, garrantzitsua da erdi-autonomiaren 3 akats larrietan ez erortzea:

- Baldintzapena. Edo haurra estimulatzea helduak nahi duena egin dezan.
- Garapen goiztiarraren eskakizuna, haurrak indiferentzia eta bazterketa sumatu dezakeelako.
- “Laissez faire” jarrera.

Bestalde, ez dugu kooperazioa eta men egitea nahastu behar, bigarren horretan haurraren erantzun pertsonalak alde batera uzten direlako. Horrekin batera, haurrari bere garapen aldian duen baino autonomia gehiago eskatzen bazaio, larritasun eta bazterketa sentimenduak izango ditu. Bere autonomia beharra errespetatuz, muga zehatzak jarriko ditugu, haserre eta judiziorik gabekoa, modu zuzen eta ulerkortasunaren bidez.

Ondorio moduan, Judith Falkek dio autonomia garatzea ez dela betebeharru bat, baizik eta eskubidea. Ez da autonomiaren garapena bilatu behar, baizik eta autonomiarako bidean lagundu behar zaio haurrari. Eta nire ustez oso ideia egoki eta garrantzitsua da hori.

2.2. Zaintza pertsonalak 2.2

Behin Emmi Piklerren teoriaren zati bat ikusita, zaintza pertsonaleko momentuetan zentratuko naiz. Lehenago aipatu dudan bezala, haurraren heziketa prozesuan kontuan hartu beharreko momentuak dira hauek, duten hezkuntza edo pedagogia balioarengatik. Ikasgelan ematen diren momentuak, bi motatakoak izan daitezke: zaintza pertsonaleko momentuak, eta horien artean gertatzen dena, haurrak bere kabuz modu autonomoan jarduerak garatzen dituelarik. Bigarrenengan, lotura sortuko dugu zeharkako modu batez, eta lehenengoan modu zuzenean.

Horiek izango dira komunikazio eta erlazio emozionala sortzeko momentu paregabeak, eta horregatik zaindu beharrekoak dira. Myriam David eta Genieve Appellek (David & Appell, 2010) azaltzen duten moduan, eguneroko arreta momentu horien bidez, umearen elikadura eta garbiketa beharrak asetzearekin batera, bere ongizate eta erosotasuna bermatu behar da. Eta baita bere gozamen eta autonomia grina errespetatu. Guzti horietan sustatzen da haurrak manipulatu eta bere kabuz gauzak egitea, hau da, heldu izatea. Horien bidez, benetako erlazio afektiboa sortzen da, eta bere buruaren kontzientzia hartzen du. Arreta pertsonaleko jarduerak dira: elikadura, bainua, pixoihalaren aldaketa, janzteia eta medikuaren azterketak, besteak beste. Guzti horietan haurra izango da sentitu, behatu eta ulertzen duen subjektua.

Honekin jarraituz, Alfredo Hoyuelosek (Hoyuelos, 2012) pixoihalaren aldaketa teknika zehatza bezala definitzen du, haurraren izaera berezkoa, inizatiba, parte hartze aktiboa, eta mugimendu askatasuna errespetatzen duena. Honekin batera, haurrak prozesu honetan nola parte hartzen duen aztertzen du, eta momentu hau gozameneko momentua izan daitekeela berarentzat, konfiantzan, entzunda, helduta eta errespetatua sentitzen delako.

Bestalde, E. Piklerren pentsamendua jarraituz egiten denean, haurrekin ditugun erlazioak aberastea eskaintzen du, eta hauek askatasun jardueretan autonomoagoak izatea. Honekin batera, beste aspektu askotan eragiten du modu positiboan: mugimendu askean, elkarlanean, interakzioan, helduarekiko hurbiltasunean, autonomian eta lotura afektibo egokian. Honetan esparru anitzek hartzen dute parte, adibidez: ingurua, hezitzaileen jarrera eta honetara zuzendutako denbora. Modu

honetan, hurrek bere posibilitate eta mugak aztertu ditzakete bere kabuz, autonomoagoak dira, eta bere pixoihalaren aldaketan parte hartzeko aukera dute, helduarekin elkarlan eta komunikazio sakonean murgilduz.

Gaiarekin bukatzeko, aipatu nahiko nuke gizakiaren bizitza oso baldintzatua dagoela bere erritmo biologikoengatik. Behar organiko hauekin lotuta egongo da, gehien bat bizitzako lehenengo urteetan, oinarrizko garapen emozionala. Emozio hauek hainbat seinaleren bidez komunikatzen ditu umeak, helduak hauek jaso eta interpretatu beharko dituelarik. Esna dagoen denbora, ariketa autonomo eta zaintza pertsonaletan banatzen da, eta bigarren honetan helduarekin dituen interakzioek sekulako garrantzia hartuko dute. Interakzio sistema horretan jaiotzen dira atxikimendua eta subjektibitatea.

2.2.1. Hezitzaile eta haurraren arteko erlazioa/harremana pixoihalaren aldaketan 2.2.1

Zaintza pertsonalen, eta batez ere, pixoihalaren aldaketak ikuspuntu hezitzailetik duen garrantzia argi geratu delarik, helduaren rola, zeregina, edo jarrera nolakoa izan behar duen azalduko dut. Hori da aldaketa baten elementurik garrantzitsuenetakoa, horretan oinarrituko delarik helduaren jardura hezitzailea, eta horren arabera eraikiko da haurraren duen harremana, eta ondorioz, bigarren honen ongizatea. Bertan faktore edo aspektu askok hartzen dute parte, hurrengo orrietan azalduko dudak moduan.

Honen barruan autonomia eta menpekotasunaren arteko oreka etengabe azaltzen da, hortaz, horren inguruan zerbait komentatu beharra dago. Horrela, Noemi Beneitok (Beneito, 2012, 10) dioen moduan, "Haur batek helduaren irakaskuntzaren bidez bakarrik ikasi nahi duenean, helduak irakaskuntza momentu hori erlazioa sortzeko erabili duelako izango da: umeak ez du jadanik jakin-minagatik egingo, baizik eta erlazioa ziurtatzeko."

Judit Falkek (Falk, 2008) dioen moduan hezitzaile eta haurraren arteko erlazioa ama-haurra erlazioak dituen ezaugarri berberetan oinarritzen da, baina hezitzaileak ez du amatasun instintuaren bidez jokatu behar, baizik eta umearen garapen prozesu orokorraz arduratu. Lehen esan dudak bezala, haurrak garatzeko erlazio emozional sakonaren beharra du, eta ongizate emozional hori, ziurtasun sentimenduak,

autonomiaren hedakuntza baimentzen du. Horregatik, argi geratzen da haurrak helduarekin duen erlazioa sakon eta egokiaren beharra.

Hezitzailearen jarrerak irekia izan behar du, adi egonez haurraren behar eta nahietara. Aldaketa egin bitartean, ez zaie gelako gainerako haurrei kasurik egin behar, momentu hori haur hori eta zure arteko komunikazio eta erlazio sakona sortzeko momentu paregabea delako. Geroago azalduko dudan bezala, helduaren keinu eta hitzak garrantzitsuak dira, noski, baina beharrezkoa da ere haurraren keinuak, hitzak,... entzutea. Horretarako, isiltasunaren beharra ere egongo da. Isilik eta adi egotea lortzen bada, haurraren interesaren adierazpenak argi ikusi ahalko dira. Hala ere, momentu honetan Loczyn ez da isiltasuna erabiltzen, eta hitza da etengabe erabiltzen dena, geroago hausnarketan komentatuko dudan bezala.

Honekin batera, helduarekin bere gorputza ezagutzen joango da umea, baina lehenengoaren jarrera hartzailea behar du horretarako, berak jarduera hori aurrera eramanez ahal izateko.

Gaiarekin jarraituz, Judit Falkek (Falk, 2009) helduak bermatu behar dituen baldintzak kokatzen ditu, garrantzitsuenetarikoa ziurtasun sentimendua delarik, erlazio afektibo egokiaren bidez sortuko dena. Eta hori zaintza pertsonaleko momentuetan garatzen da modu oso berezi batez. Horretarako garrantzitsua da haurraren adierazpenak entzun, erantzun eta horiei zentzu bat ematea.

Bestalde, heldua eta haurraren erlazio afektiboaren inguruan hitz egiterakoan garrantzi handia hartzen du atxikimenduaren ideiak. Haur batek behar bat adierazi eta guk ez badiogu horri erantzuten, ez badugu lasaitzen edota ez bagara agertzen, haurtxoa 3 faseetatik igaro daiteke: kexa, amorrua eta atxikimenduarekin desagertzea. Atxikimendua kontuan hartuz, pertsonok 3 modutan erlazionatzen garela uste da, hala nola: atxikimendu ziurra, larritasun handiko atxikimendua, eta atxikimendu ez ziurra. Hori bideratzeko, Noemi Beneitoren (Beneito, 2012) hitzak aipatu nahiko nituzke: "Menpekotasunaren helburua ez dela atxikimendua areagotzea ulertu behar dugu, baizik eta haurrari irekitzea baimentzea."

Haurra eta helduaren arteko erlazio egoki baten eraikuntzan aspektu batzuk hartu behar ditugu kontuan. Hurrengo orrietan aspektu horien azalpena, garrantzia eta

funtzioa azaltzen saiatuko naiz, horiek izango direlarik: Mugimendu askatasuna eta autonomia/dependentzia, hitza edo komunikazio berbala, keinuak edo kontaktu fisikoa eta begirada. Horiekin lotuta, Alfredo Hoyuelosek (Hoyuelos, 2012) bere artikuluan zehatzagoak diren beste batzuk azaltzen ditu, pixoihalaren aldaketan kontuan hartzeko aspektuen artean, eta ondorengoak hurrengo orrietan azalduko ditut modu sakonago batean:

- Hurbilpena begiradaren bidez.
- Hitza erabiltzeko modua eta tonua.
- Kontaktua egiteko modua.
- Haurraren baimena eskatzeko moduak.
- Haurra altxatu edo mugitzeko moduak.
- Uzteko modua.
- Umeak eusteko modua, mugimendua baimenduz eta posizioa errespetatuz.
- Espazioaren prestakuntza.
- Hurbilpena eta gorputzaren distantzia.
- Arropa mota.
- Elkarrizketaren erritmoaren sorrera, bere mugimendu eta gure asmoak (aurre ezagutuak).

2.2.2.1. Mugimendu askatasuna 2.2.2.1

Haurraren garapena nola ematen den azaltzerakoan hurbilpena egiten dut gai honetara, haurraren mugimenduari errespetua eta askatasuna ematean datzalarik. Hau izango da heldua eta haurraren arteko erlazioaren barne lortu beharreko helburu bat.

Judith Falkek (Falk, 2009) dioen moduan, guraso eta profesional batzuek ez dute uste gure estimulaziorik gabe haurra garatuko dela, eta ez dutela objektu batenganako interesik izango gure bultzadarik gabe. Beste batzuek, aldiz, uste dute haurrarekin jolasteko edo maitasuna adierazteko modua dela, adibidez, haurra esertzea.

Erresistentzia horren atzetik erlazioarekiko beldurra dago, E. Piklerrek erlazio aldaketa baten alde egiten duelako.

Ikuspuntu honen arabera, helduak ez du ohiko esku hartzeak egingo; ez du haurra hartuko berak nahi duenean, eskuetan momentu batzuetan bakarrik eramango du, ez dio jolasik proposatuko, ez du eseriko, bere gorputz jarrera errespetatuko du... Alde batetik, haurraren beharra ez delako momentu guztietan beso gainean egotea. Bestalde, haurrak menperatzen ez duen posizio batean jartzeak, pasibo edo menpekota bihurtzen duelako, eta menpekotasuna areagotzen da. Helduaren paper berriak, haurrak jardun ahal izateko baldintzak jarri eta berarenganako ezagutza sakona eraikitzea suposatzen du. Biak elkarrekin egoteko beste modu bat da, ulertzeko beste modu bat. Honek suposatuko du elkarrekin egoteko momentuak askoz aberasgarriak izango direla bientzako. Gainera, haur jaioberriak gertatzen ari denaren inguruan parte hartu badezake, bere gaitasunaren sentimendua areagotuko da, garapen sozial eta afektiboaren oinarri dena. Helduak ez du parte hartzea derrigortuko, baina adoretu eta balioetsiko du.

Horretaz aparte, janzteko momentuan, beraren parte hartzea sustatu behar da, berak eskua luzatuz, oina emanez... parte har dezan, parte hartze aktiboa sustatzeko.

Bestalde, mugimendu askatasun honekin oso lotuta dago denboraren kontzeptua. Ikuspuntu berri honen bidez, pixoihalaren garrantzi pedagogikoa onartzen denez, ulertzen da honek behar duen denbora guztia errespetatuko dela. Hezitzaileak haurraren mugimendu autonomoei eta interakzioei garrantzi handia eman behar die, eta ondorioz, beharrezkoa den denbora guztia eskaini momentu honi, inolako presarik gabe.

2.2.2.2 Keinuak: hezitzailearen eskua eta gorputza 2.2.2.2

Anna Tardosek (Tardos, 2008) azaltzen duen moduan, ukimenezko estimuluek izugarriko garrantzia dute umea eta helduaren arteko erlazioan. Berak argudiatu nahi du gorputz-kontaktua batzuetan desatsegina eta arrotza izan daitekeela haurrarentzat, amorrusentzat sentimenduak sortarazi ditzakeelarik.

Berarekin gozamenezko modu batean aritzen bagara pixoihalaren aldaketan, bera geroz eta gehiago erlaxatuko da, eta helduak hartu, garbitu eta janzteko orduan,

hezitzaileak ukitu baino lehen egongo da lasai. Elkarrekin bizi dituzten egoera atseginak haien arteko erlazioa indartzen du, eta kontrakoa izango da zaintzak desatseginak badira. Gainera, idazleak azaltzen duen moduan, indarrezko edo bat-bateko keinuek haurra beldurtzen dute. Ez badugu lasaitasunez itxoiten haurrak burua altxatu, hankak ireki, etab. egitera, helduaren keinuek haurraren erresistentzia gainditu beharko dute, berari sentsazio desatseginak sortaraziz, nahiz eta kontuz eginikoak diren. Askotan, haurraren sufrimendua oreka faltagatik edo galerarengatik dator.

Horrekin batera, haurraren ongizatea helduak nola ukitzen duenaren menpe egoten da gehienetan. Lanean zehar askotan errepikatzen diren keinuak mugimendu errepikatuak, motzak bihur daitezke, eta askotan, mekanikoak. Honek haurraren parte hartzea deuseztatzen du, haurraren keinuak ez direlako onartzen helduaren lana erosoago izateko, eta beste gauza asko galtzea dakar, begiradak eta hitzak, besteak beste. Haurra bere izenaren bidez deitu, begiratu, hurbildu eta hor dagoela konturatzeraz itxoiten badu, bere parte hartzea espero duela ulertuko du umeak. Bestela, haurra baliorik gabeko objektua bezala ulertzen da, arduraz tratatu behar den izakia ez balitz bezala.

Hezitzailearen keinuek ez badute haurrarengan erosotasun sentimenduak sortarazten, zaila izango da haien arteko erlazio afektiboak sortzea. Haurrak jakin behar du helduaren mugimenduen bidez, zer gertatuko den eta helduak umea ikusteko moduan kokatu behar du, bere keinuak jaso eta interpretatzeko. Pixoihalaren aldaketa mugimendu azkarren bidez egiten bada, mota guztietako keinu eta begiradak kanpoan geratuko dira.

Hortaz, keinuen bidez erlazio afektiboa sortu eta haurraren mugimendu askatasuna eta autonomia beharra errespetatu nahi badugu, haurrak ziurtasun sentimendua ez galtzeko moduan mugitu eta heldu behar du. Horrekin batera, mugimenduak baimentzeko moduan kokatu behar dituzte, eta eskuen bidez haurrak sentitzen ari denaren adierazleak bilatuko dituzte. Gainera, haurraren kooperazioa bilatu behar du, bere denbora errespetatuz eta abiadura horretara moldatuz, bere erantzunaren zain egonez.

Beraz, pixoihalaren aldaketaren momentuan, hezitzailea haurraren aurrean kokatu behar da, eta bera gure presentziaz konturatu denean, hartuko dugu. Burua kontu handiz eutsi behar zaio eta oreka eta ziurtasun sentimendua ez galtzea bilatu behar dugu. Honetaz gain, haurrak keinuen bidez esaten diguna entzun behar dugu.

Gaiarekin jarraituz, helduak ziurtasun sentimendua indartu behar dio haurrari. Eta haurra ziur sentitzeko, garrantzitsua da helduak hori eskaintzea bere gorputzaren presentziaren bidez. Beharrezkoa da mugimendu leunak eta sendoak izatea, posizio aldaketa gogorak jasan gabe, hezitzailearen gorputzaren babesa eta eustea sentitzen duelarik. Hau modu egokian egiteko, hurrengo pausu hauek jarraitzea beharrezkoa litzateke:

- “Decubito dorsal”-ean dago haurra kokatua. Haurra bere aurrean kokatzen da.
- Bere gorputza makurtzen du, bi besoak ukondoraino finkatuz haurraren gorputzaren bi aldeetan. Bi eskuekin burua altxatzen dio.
- Ondoren, esku batekin mantenduz, beste eskua gorputzaren azpitik pasatzen du, hankaraino edo aldakaraino.
- Orduan burua beso horretan finkatzen du, eta haurra altxatzen du beso batekin eutsiz, bitartean beste eskuarekin haurraren besoa aurreratzen duelarik (bere gorputzaren kontra geratzen dena.) Umea gorputzarekin estali behar dugu, “gorputzaren bidez haurra biltzen” dugularik, beso eta gorputzaren bidez.
- Heldua geldirik badago, bere sorbaldarentzako euskarria bilatu dezake horman, oreka galtzea haurrari ez transmititzeko.
- Heldua eserita badago, bere bizkarra, aldakak, izterrak eta oinak finkatu beharko ditu, euskarri horietan erlaxatuz.

Bestalde, haurra zerbaiten gainean finkatzeko, euste teknika hurrengoan oinarrituko da: lehenik eta behin, helduak azaleraren gainean makurtu eta haurra eusten ari den besoa jarriko du. Ondoren, aske duen eskuarekin burua eutsi eta besoa kanporatuz joango da. Bukatzeko, bi eskuekin hartuko du burua eta azaleraren gainean kokatu.

2.2.2.3 *Komunikazioa: begirada eta hitza* 2.2.2.3

Pixoihalaren aldaketa gauzatzerakoan, hauek izango dira haurrarekin erlazio afektiboa sortzeko aspektu garrantzitsuenetarikoak. Horren bidez haur eta helduaren arteko dialogoa sortu eta finkatuko da. Honi esker, jarduera mekanikoa izan litekeena hezkuntza jarduera bihurtzen da, geroago egindako behaketetan argi geratu zitzaidan moduan. Eta helduak hauek nola erabili ezagutzea izugarritzko garrantzia duela iruditzen zait.

Rosa Vidiellaren hitzetan (Vidiella, 2013), gaur egun haurrek jaio bezain laster bere ama begiratzen dutela aztertuta dago. Pixoihalaren aldaketako momentuan, hezitzailea haurrari zuzentzen zaio, bere soinu, keinu...erantzuten, benetako elkarrizketa sortuz. Horrekin batera, gertatzen ari dena eta egingo duena etengabe azaltzen doa. Berari zuzentzeko orduan, gertatzen denarekiko jarrera irekiarekin egingo du: postura aldaketak, begirada edo keinu bat objektu batekiko, ingurunearen behaketa eginez... Eta gehien bat, haurrak adierazten dituen desio edo nahietara adi dago.

Beraz, hezitzailearen lengoia interpretatzailea da, eta horri proposamenak gehitzen zaizkio, galdera moduan eginez. Pazientziaz itxaron behar da erantzuna, haurrari keinurik inposatu gabe. Beraz, haurrari aurreikuspena baimentzeko erabiliko du lengoia ere. Honela, haurrari egiten duena azaltzearekin batera, sentimendu eta sentsazioei hitza jarriko die: "Hau ez zaizu gustatzen, ezta?". Azalpen horietarako objektuak erakustea ere gomendagarria izan ohi da.

Modu honetan, bi egoera sortzen dituzte: haurra bere gorputzean gertatzen denaz eta helduarekin gertatzen ari denaz konturatzen da. Eta gertatu behar dena aurreikusteko aukera ematen zaio haurrari, parte hartzea baimendu eta sustatuz.

Nahiz eta momentu horiek haurrarentzat gozamenezkoak diren lehenengo hilabeteetan, geroago motrizitatean eta mugitzean izango du interes gehiago. Helduak ulertu eta onartzen badu, zutik aldatzen saiatuko da, baina bere helburua alde batera utzi gabe: aldaketa egitea. Horrela, egoera horrekin erlazioa duten hitzak erabiliko ditu, objektu eta gertaerak izendatuz, ulertzeko eta parte hartzeko denbora emanez. Modu honetan, haurrak hezitzailearen hitz eta keinuak jarraitzen joango da, soinu eta

mugimenduekin lagunduz, eta erabakiak hartzen. Azken finean, bere esku hartzea eta elkarrizketa garatzen joango da.

Horretaz gain, hezitzailearen hitz egiteko modua beti berbera izango da, tonu berberean, "Infantilismos"-rik gabe, leuna, erritmo batean momentu guztietan, argia eta zehatza.

2.2.2 Espazioaren antolaketa 2.2.2

Heldua eta haurraren arteko erlazioaren barne, helduak haurrak modu egokian garatu daitezkeen prestatu behar ditu espazioak, eta horren inguruko oinarri batzuk argi izan. Ondoren horietako batzuk azalduko ditut, gehienak pixoihalaren aldaketa egiterako orduan kontuan hartzekoak direnak.

Momentu hauetan zehar, sentsazio ugari izaten ditu haurrak, eta lasaitasuna, ziurtasun afektiboa eta gozamina zaintzen duen helduarekin erlazionatzen du. Testuinguru zurrak izateko, hainbat baldintza bete behar ditu espazioak:

- Gizaki testuinguru eta testuinguru fisikoaren jarraikortasuna

Haurrak munduarekin duen lehenengo kontaktua zaintzen duen helduaren bidez egiten du, eta hura izango da esperimendatzeko eta ezagutzeko lehenengo objektua. Horregatik, ahalik eta pertsona gutxien badaude haurra zaintzen, hobe ohituko eta ezagutuko ditu. Haien artean atxikimendu lotura sortzea izango da helburua, txiki-txikiak direnetik lotura afektiboak sortzeko gai direlako.

Bestalde, espazioak akzioaren antolakuntza mentala eta aurreikuspena eragiten du. Geroago, espazioaren antolaketarekin batera komentatuko dut puntu hau.

- Konfiantza ematen dion testuingurua

Helduaren jarrera aurreikusten laguntzen diona. Haurrak inguruan estimulu asko ditu, hala nola: argiak, tenperatura aldaketak, kontaktuak, hitzak... Helduen paper garrantzitsua da aspektu horiek aukeratzea, haurraren gaitasunen arabera.

- Pausuz pausuko adaptazioa

Haurraren behar aldakorrak asetzen dituen testuingurua izan behar du. Honek esan nahi du haurrak jarduerak bere kabuz garatu nahi baditu, egiteko aukera izan beharko

duela. Honek menpekotasunik autonomiara igarotzea eragingo du haurraren, edo hori bilatuko dugu.

- Hornidura

Ezagutzaren garapena sustatzeko elementuez hornitua egon beharko du. Umearentzat, objektuak hartzeko, espazioan lekualdatzeko, eta pertsoekin elkarreraginean aritzeko dituen aukera guztiak dira aberasgarriak, bere burua eta testuingurua ezagutzeko. Helduak espazioa horretarako prestatu behar du.

Bestalde, Agnes Szanto Federek (Szanto, 2011) bere liburuan aztertzen duen moduan, eguneroko bizitzaren barruan espazioaren antolaketa kontuan hartzeko aspektua da. Horrela, helduak etengabe berrantolatu behar du, haur baten behar eta desioen arabera eta ziurtasuna bermatzeko. Honen inguruko ideiak asko aldatu dira denboran zehar, gai ezberdinei dagokienez, adibidez: Harresien egokitasuna/desegokitasuna, eskailerak egotea ala ez...

Honen barruan kokatzen dira espazioak bete beharreko baldintza batzuk, hala nola:

- Espazioa beti haurrak erabiltzen ari dena baino pixka bat zabalagoa izango da, nahi badu urrunago joan ahal izateko.
- Ez du aulki bezalako euste-tresnarik behar, txikiak direnean sehaskan edo koltxoi batean hobe daude, mugimendu askatasuna badute posturaz askotan aldatzen dutela aztertua izan baita.
- Arropa askatasun horri mesede egin behar dio, artikulazio ezberdinen mugimendua baimentzen duelarik. Horrela, adibidez, botoiak sorbaldetan egongo dira, eta ez bularrean, arrastaka ibiltzerakoan min har dezakeelako.
- Zoru gogorrak, biguinak baino neke gutxiago sortzen du, eta horregatik mugimendurako egokiagoa da.
- Jostailu edota tresnak bere adin eta garapena kontuan hartuz egokituak izan beharko dira, kantitate eta kalitatea horren arabera moldatuz. Hauek behaketa eta hausnarketarako estimulu etengabeak izango dira.

3. MATERIALAK ETA METODOAK 3

3.1. Metodologia 3.1

Lan hau burutzeko erabili dudan metodologia kualitatiboa izan da, non informazioa jaso eta horren analisia egiten den. Interpretazioa egiten da, ulertzeko eta hausnartzeko helburuarekin. Horren barnean, erabili dudan metodologia etnografia izan da, eta horretan kokatzen diren bi teknika erabili ditut: dokumentuen analisia, elkarrizketa eta behaketa zuzena. Baina modu zehatzago batean metodologia etnometodologikoa erabili dut lan honetarako. Ikuspuntu soziologiko honek gizakiak bere egunerokotasunean egiten dituen gauzak burutzeko moduak aztertzen ditu. Eta nola garatzen diren giza errealitateak. Batez ere aztertzen du nola gertatzen eta errepikatzen diren egunerokotasunean jarduteko moduak, eguneroko bizitza nola antolatzen eta sortzen den behatzeko. Beste hitz batzuetan, etnometodologoek ez dute interesik pertsonen pentsatzen dutenaren inguruan, baizik eta egiten dutenaren inguruan. Modu horretan, azalpen deduktiboak egin ordez, deskribapenak egitea dute helburu. Eta analisiaren ardatza pertsonen eguneroko jardueretan duten jarrera da, sozialki onartuak dauden moduen bidez.

Behin erabilitako metodoa azaldu dudan, egindako pausuak adieraziko ditut. Lehenik eta behin bibliografia aztertu nuen, pixoihalaren aldaketa eta Emmi Piklerren teorian sakonduz. Hori egin ondoren, elkarrizketetarako galderak prestatu nituen, teorian irakurritakoa kontuan hartuz. Galderen artean hautaketa bat egin eta interesgarrienak iruditu zitzaizkidanak Egunsenti haur eskolako hezitzaileei bidali nien. Horrekin batera, 6 haurren gurasoentzako eskutitzak prestatu nituen, nor nintzen eta zer eta zertarako nahi nuen azalduz. Baimena hori sinatuz, haien seme-alabaren pixoihalaren aldaketa dokumentatzen (argazkiak atera edo grabaketa egiten) uzten zidaten. Maiatzaren 6an, astelehena, haur eskolara joan eta elkarrizketak egin eta grabatu nituen, arratsaldeko 15:30tan.

3.2. Lan enpirikoa 3.2

Egunguenti, Txantrean kokatutako Udal Haur Eskola da, eta zuzendariak Inma izena du. Nik hiru hezitzaileei, A, B eta C, egin nien elkarrizketa haur eskolan bertan, eta banaka egin nituen, haien erantzun ezberdinak behatzeko. Elkarrizketak egiteko, ondorengo galdeketa erabili nuen:

- 1. Zenbateko edo nolako garrantzia ematen diozu fardelaren aldaketako momentuari? Nola bizi duzue zuek eta haurrek?*
- 2. Nola erabaki zenuten E. Piklerrek ziona kontuan hartuz eta hori jarraituz fardelaren aldaketa gauzatzea? Zer nolako desberdintasunak edo aldeak ikusten dituzu lehengo modua eta orain egiten duzuenarekin?*
- 3. E. Piklerrek haur bakoitzarekin zaintza pertsonalak gauzatzeko heldu kopuru mugatua egon behar dela esaten zuen, erreferente asko ez izateko. Egunguentin, hori jarraitzen saiatzen zarete, ala ez?*
- 4. Pixoihalaren aldaketarako espazioa eta tresnak: "cambiator" delakoa haurraren mugimendua baimentzeko moldatu duzue? Zergatik? Zer gehiago moldatu duzue espazio edo tresna aldetik?*
- 5. Nola bizi duzue pixoihalaren garrantzia denbora aldetik? Nola planifikatzen duzue? Uste duzue merezi duen denbora eskaintzen zaiola?*
- 6. Aldaketa ona eta egokia egiteko hainbat irizpide jarraitzen duzuela argi dago. Azalduko zenidake hurrengo irizpideen garrantzia, nola erabiltzen dituzuen, eta haien funtzioa?: hitza, kontaktua, begirada, autonomia/menpekotasuna, lotura emozionala.*
- 7. Zeintzuk dira momentu horren zailtasun handiagoak zuretzat?*

8. Pixoihalaren aldaketa nire aurrean egiteko 2 haur aukeratuko dituzue. Zergatik bi horiek?

Ondoren, teoria eta elkarrizketetan oinarrituz parametro edo irizpide batzuk sortu nituen, behaketan zer behatu alde zehazteko, niretzat eta lanerako interesgarria zena hautatuz. Irizpide hauek zuzendariarekin aztertzerakoan, erabaki genuen horien antolaketa egitea, modu egoki batean azaltzeko. Horretarako, hauek aldatu eta 5 puntutan sailkatu nituen: galderak, pautak, behaketa, interpretazioa eta geroago sortzen diren galderak. Honekin batera, behaketa egiteko 5 esparru zehaztu genituen, eta ondoren kokatutako taula sortu nuen:

Taula 1: behaketak egiteko irizpideak

ESPARRUA	GALDERAK	PAUTAK/IRIZPIDEAK
1. ANTOLAKUNTZA	1.1. Nolakoa da aldatzeko mahaia?	- Tamaina - Sakonera - Harresiak - Zorua edo gainazala - Ispilua - Txorrota
	1.2. Nolakoa da ingurua?	- Gainerako haurren kokapena. - Gela kopurua eta kokapena.
	1.3. Nolakoa izaten da pixoihalaren aldaketa denborari dagokionez?	- Haurrak nahi duenari errespetua. - Txandak.

		-Larritasun sentimendua.
	1.4. Nola prestatzen dira aldaketarako beharrezkoak diren tresnak?	-Tresnak kokatzeko denbora. -Tresnen kokapena.
2. KOMUNIKAZIOA ETA KOMUNIKATZEKO OZTOPOAK:	2.1. Nola edo zertan antzematen da haur eta helduaren arteko konfiantza, intimitatea eta erosotasuna...?	-Begiradak -Keinuak -Hitzak -Mugimenduak -Begirada
	2.2. Nola adierazten du haurrak pixoihala aldatzeko beharra duela?	-Hitza. -Posizioa. -Keinuak. -Begiradak.
	2.3. Zer nolako estimuluak ditu haurrak inguruan? Horiek komunikazioa oztopatzen dute?	-Beste haurrak -Txorrota -Aldaketarako tresnak ...
	2.4. Nola edo zertarako erabiltzen du hitza hezitzaileak?	-Haurrari egin behar duena aurreratu. -Lasaitasuna. -Deitzeko momentua. -Adorea eman. -Egindako jokaera indartu

		<p>edo saritzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Egindakoari hitza jarri. -Sentimenduak edo sentsazioak adierazi. -Prozesuaren bizkortzea. -Isiltasun momentuak. -Erabilgarritasun ludikoa.
	2.5. Zer lengoaia, tonua edo hitz egiteko modua erabiltzen du?	<ul style="list-style-type: none"> -Tonua. -Altuera. -Konplexutasuna. -“Infantilismoak” -Haurrari zuzentzeko modua: galderen bidez, inperatiboa, proposamenaren bitartez...
	2.6. Nola erabiltzen du haurrak hitza?	<ul style="list-style-type: none"> -Komunikatzeko grina. -Helduarekin erlazio edo komunikazio bilatzea. -Sentsazioen adierazpena. -Objektuen izendapenak. ...
	2.7. Nola deitzen du haurra pixoihalaren aldaketa egiteko?	<ul style="list-style-type: none"> -Hitza -Keinua -Begirada -Kontaktu fisikoa

		-Mugimendu autonomoa
	2.8. Nolakoak dira hezitzailearen mugimenduak edo keinuak?	-Goxotasuna. -Abiadura. -Mekanikotasuna. -Haurraren mugimenduari errespetua. -Haurraren jarrerari errespetua. -Hitza eta begiradarekin erabilpena.
	2.9. Nola edo zertarako erabiltzen du begirada hezitzaileak?	-Kontaktu bisualaren mantentzea. -Lasaitasunaren transmisioa. ...
	2.10. Nora edo nori begiratzen du haurrak?	
	2.11. Nolakoa da hezitzailearen gorputz jarrera?	-Nolakotasuna. -Altuera.
3. GORPUTZ JARRERA ETA GORPUTZAREN MUGIMENDUAK	3.1. Zer "koreografia" gauzatzen du hezitzaileak?	-Mugimendu motak. -Garatzeko moduak. -Errepikakortasuna.

			-Gorputzaren distantzia.
		3.2. Nolako jarrera-aldaketak egiten ditu haurrak?	-Buruz gora, buruz behera, alboka, katuka, eserita, zutik, hartzarena, belauniko eta makurtuta. -Askatasuna. -Jarrera arrotzetan kokapena. -Hurbiltzeko modua. -Igotzeko eta lekualdatzeko modua.
		3.3. Nolako mugimenduak egiten ditu haurrak?	-Ezaugarriak -Lagungarritasuna. -Mugitzeko askatasuna.
		3.4. Hezitzaileak haurra mantentzeko edo lekualdatzeko modua.	-Burua, sorbaldak eta bizkarraren eusteko modua. -Umearentzat ezezagunak diren posturretan jartzen du/ez.
4. EKINTZA KOMUNIKATIBOAK	EZ-	4.1. Zer egiten du hezitzaileak funtzionalki?	-Pixoihala zikinarekin -Eskuak garbitu -Eskularruen erabilera
5. AUTONOMIA MENPEKOTASUNA:	ETA	5.1. Nolakoa da haurraren parte hartze	-Mugimenduak gauzatzea. -Saiakerak eta erantzuna.

	aktiboa, pixoihalaren aldaketan?	-Aginduak. -Jarrera/mugimendu askeak. -Lekualdatzeko/ hurbiltzeko modua.
	5.2. Zer momentutan antzeman daiteke menpekotasuna dagoela?	-Laguntza. -Alboan egon. -Itxarotea. -Mugimendu bateragarriak.
	5.3. Zer momentutan eta nola agertzen da umearen autonomia?	-Iniziatibak. -Umearen mugak. -Umearen aukerak.

Behin hau zehaztuta, haur eskolara joan eta pixoihalaren aldaketak ikusi, grabatu eta argazkiak atera nituen, sortutako galdera eta pauten arabera. Horretatik ondorioak atera ditut, bilatutako bibliografia eta praktikan ikusi nuenaren artean konparaketa egin eta horren inguruan hausnarketa eginez.

4. EMAITZAK ETA DISKUSIOA 4

Behin analisia egiteko datuak lortuta, emaitzen analisi eta interpretazioa egiten saiatuko naiz. Datu hauek lortzeko, lehen aipatutako tresnak erabili ditut: behaketa zuzena eta elkarrizketak edo galdeketa irekiak. Bi hauetan lortutako emaitzak izaera ezberdinekoak dira, eta horregatik emaitza eta diskusioa modu ezberdinean egitea erabaki dut. Elkarrizketen kasuan, 3 horien arteko konparaketa egingo dut, analisia modu horretan garatuko dudalarik, gero laneko hurrengo atalean ondorioak ateratzeko.

Bestalde, bideoen eta argazkien kasuan (behaketa zuzena), emaitzak lehendik zehaztutako irizpideen eta galderen arabera aztertuko ditut. Horrela, galderak eta pautak edo irizpideak kontuan hartuko ditut, behaketan ikusitakoa analizatuz eta interpretazioak aterako ditut, geroago sortu daitezkeen galderen zehaztapena eginez.

Honekin lotuta, eskerrak eman nahi dizkiet Egunsenti Udal Haur Eskolako hezitzaile eta zuzendariari, primerako harrera egin eta ederki erantzun zidatelako galderak, nahiz eta urduritasuna sortu. Hortaz, ezinbestekoak izan dira lan honetarako, eta oso eroso sentiarazi ninduten, izugarri eskertu nuena.

4.1. Elkarrizketak 4.1

Elkarrizketak gauzatzeko, lehen aipatu ditudan galderak erabili nituen. Hurrengo lerroetan, 8 galderei erantzundakoak laburtuko ditut, hiru hezitzaileek berdin erantzun zutena eta emandako erantzun desberdinak konparatuz. Hezitzaile hauek ditikoen gelan daude, eta haien artean oso ezberdinak ziren hezitzaileak, "C"-k 5 urte darama lanean, eta "A"-k, ordea, ia-ia 30. Beraz, haien arteko erantzunak nahiko desberdinak izango direla suposatu daiteke, baina E. Piklerren inguruko formazioa jasotzen ari dira edota jaso dute hirurek. Honekin lotuta, ikus daiteke aspektu asko modu berberean bizi dituztela, baina ezberdintasunak ere ikus daitezke. Hurrengo orrietan erantzunen arteko konparaketa eta interpretazioa egiten saiatuko naiz.

Lehenengo eta bigarren galderari erantzunez, denek garrantzia handia ematen diote pixoihalaren aldaketaren momentuari. "A"ren esanetan, Malaguzziren inguruko formazioarekin hasi ziren, eta horretan ikusten hasi ziren momentu horrek behar duen arreta, eta ez bakarrik tailerrek eta beste jarduerak. "C" ere horrekin ados dago, beste jarduerak duen garrantzi bera duela dio, eta "B"-k esaten duenagatik ondorioztatu dezakegunez, berarentzat arreta gehiena behar duen momentua da, bere izaerari dagokionez, eta baita horretan sortzen den harremanagatik. Bere ustez, ume bakoitzarekin bakarrik egoteko momentua da, berari bakarrik arreta eskaintzeko, eta horrek erlazio bitxi bat sortzen duela dio, berak eta hurrek ere eskertzen dutelarik.

Lehen eta oraingoaren arteko ezberdintasunari dagokionez, "A"-k dio lehen, haur asko direnez, oso momentu larria izaten zela pixoihalaren aldaketakoa, denena egin behar zelako alde aurretik zehaztutako momentuan. Korrika eta presaka egiten zuten, eta bere balio hezitzailea ikusten ez zutenez, pasa beharreko momentua izaten zen, ahalik eta azkarren, gero siestara joan eta bertan lasaituko zirelakoan. Horrek eragiten zuen larritasun handia, haientzat eta haurrentzat ere.

Orain aldiz, ulertzeko modua aldatu eta denbora gehiago ematea erabaki dute, duen garrantzia antzeman dutelako. Hori erabakitzean, antolaketa modua aldatu dela esaten du "A"-k, eta horregatik beste pertsona bat ("C") ekarri dutela laguntzeko horretan eta bazkarian. Horrela aldaketak behar direnean egiten dira, modu lasaian. Horren inguruan, "C"-k dio orain momentu hori askoz gehiago lantzen dutela, eta horrek eragiten du bera eta umeak askoz ere lasaiago egotea. Horrela, lehen "mekanikoa" zena orain parte hartzea sustatzen du, eta profesional eta haurren arteko adostea suertatzen dira, beraientzako gozamenezko jarduera bihurtuz.

Pixoihalaren aldaketa ulertzeko modu berri honek zera lortu du: haurraren mugimendu eta denborari errespetua izaten dela. "C"-k azaldu zuen moduan, haur batek hasieran ez zuen aldaketan bira eman nahi, eta bere gorputz jarrera errespetatu zuten. Horrek eragin du orain gozamenezko momentua izatea berarentzat, eta bera subjektu aktiboa bihurtzea, berak erabaki baitu noiz zuen buruz gora jarri. Beste aldetik, haurrak gozamenez egiten dute eta hori antzematen dute egunero hezitzaileek. Haurrak joan nahi izaten dute, eta etxean horrela gertatzen ez dela diote guraso batzuek. "B"-k dio hori izango dela Egunsentin parte hartzeko aukera ematen dietelako, eta egin behar

dutena azaltzen joaten direlako. Horrek, "B"-ren ustez, zuzeneko eragina du haurraren autoestiman.

Hirugarren galderaren inguruan, ez dute kontuan hartzen heldu kopuru murrizta izan behar duela. Alde batetik, gelako ikuspuntuaren alde, atxikimendua haur guztiek hirurekin egitea bilatzen dutelako, eta hezitzaile bakoitza, bera bakarrik gelan geratzen bada, gela eramaten jakin behar duelako. Hala ere, argi eta garbi dute umearen arabera atxikimendu gehiago edo gutxiago sortuko dela bakoitzarekin, eta hori errespetatzen saiatzen dira. Nahiz eta esan bezala, atxikimendua hirurekin sortzea garrantzitsua ikusten duten.

Laugarren galderari erantzunez, pixoihala aldatzeko mahaia moldatzeko nahia dutela kontatu zidaten. Hala ere, horretarako eskola guztiak erabaki behar du, taldeko erabakia izan behar duelako. Horretarako eskola guztia pasa eta ados egon behar duenez, nahiko motela da erabakiak hartzea, baina bestela bakoitzak nahi zuena egingo luke. Baina erabaki hori dagoeneko hartuta dago, eta etorkizunean aldatzeko mahaiari harresiak (inguruan bertikalean kokatuko makilak, haurraren mugimendu eta bere ziurtasunerako mesedegarriak direnak) jarriko dizkiotela adostuta dago. Dena den, "A"-k esandakoaren arabera, aldaketa momentuan umeak mugitu eta posturaz aldatzen dira, nahiz eta harresirik ez izan. "B"-ren ustez, harresiaren beharra dute, alde batetik mugitzeko, eta bestetik arriskua saihesteko. Izan ere, ondoan ur txorrota dago, eta umeentzat oso interesgarria denez, batzuetan botatzeko edo erortzeko arriskua dago. Gainera, aldagailua sakonera handikoa da, eta "B"-k dio aldatu beharko zela, askotan haurrak urrun joan eta haiengana hurbiltzea zaila egiten delako. Aldagailuarekin batera bazkaltzeko lekua ere aldatu nahi dutela esan zidan "B"-k.

Horrekin batera, espazioan eta bere antolaketan aldaketak egiten ari direla komentatu zidaten. Alde batetik, aldatzeko mahaira igotzeko ate bat dago, eta itxita egoten zen, bakarrik oinez zekitenentzat irekitzen zena. Orain aldiz, katuka ibiltzen direnak ere igo daitezke, aurrera pausu handia delarik haientzat, umeek dakitelako zer, noiz eta nola egin behar duten, eta igotzeko eta jaisteko aukera dutenez, ez dira subjektu pasiboak sentitzen. Beste alde batetik, ispiluaren kontua aipatu zuen "B"-k. Lehen, garrantzi handia ematen zioten ispiluari, baina orain konturatzen ari dira distrakzioa suerta daitekeela, eta elkarrizketa oztopatu. "C"-k, espazioaren inguruan galdetzerakoan,

esan zuen aldaketak egiten ari direla, adibidez, bazkaltzeko moduan. Lehen “tronak” (aulki altuak) erabiltzen zituzten, eta helduek hartu eta igotzen zituzten haurtxoak. Aurten horiek desagertu dira eta aulkiak jarri dituzte, haurren mugimendua baimentzeko.

Bosgarren galderak pixoihalaren aldaketaren denborari egiten dio erreferentzia. Denek diote orain beharrezkoa den denbora ematen saiatzen direla, eta abiadura asko aldatu dela, prozesua motelduz eta mantxotuz. Lehen jardueraren artean egin beharreko zerbait zen, azkar pasa behar zena, eta orain aldiz, jarduera berak duen garrantzia du, eta hau egin gabe gelditu behar bada, gelditzen da. “C”-k esaten duenaren arabera, bera laguntzeko dagoenez, denbora asko dutela aldatzeko. Hala ere, egunaren arabera ez dute behar bezainbesteko denbora, eta pena ematen dien arren, azkarrago egin behar izaten dute aldaketa. Horrekin batera, ume bakoitzak behar duen denbora oso ezberdina izaten da. Batzuen kasuan, badakite hurrengo pausua zein den eta bere kabuz altxatzen dute ipurdia, besoa edo hanka luzatu, etab. Beste batzuekin ordea, azalpenak gehiagotan eman behar dira, eta luzatu egiten da horrela.

“B”-k dio askotan hurrek interesa dutela beste jardueran eta ez dutela pixoihala aldatu nahi. Orduan hezitzaileak hori ulertu eta onartu behar du, baina ez du aldatu gabe utziko. Azalduko dio aldaketa egin behar dela, deuseztatu ezin daitekeen muga bezala, adosteko modurik ez dagoelarik.

Seigarren galderari erantzuteko, pixoihalaren aldaketan garrantzi handia duten aspektuetan zentratu behar ziren hezitzaileak. Denek garrantzi handia ematen zioten aipatutako aspektu guztiei, baina faltan bota nuen autonomia eta menpekotasunaren arteko orekaren inguruko hausnarketa. Hala ere, oraingo lerroetan hitza, kontaktua, begirada eta lotura emozionalaren inguruan esandakoa azalduko dut, bakoitzak esandakoa jarriz.

“A”-ren ustez, lehenengo aspektua begirada da, geroago hitza, ondoren kontaktu fisikoa eta azkenik lotura emozionala sortuko da, autonomia bultzatuko duena. Bere ustez, hezitzailea ondo egon behar da maila emozionalean, bestela ez duelako ezer lortuko.

Begirada eta hitza lasaitzeko erabiltzen dituela esaten du "A"-k. Haurrentzat bortitza izan daitekeen mugimenduren bat egin behar baduzu, azaldu behar diozu zer egin behar duzun, lasaitzeko. Horrela, begirada eta hitza zer eta zergatik etorriko den azaltzeko erabiltzen du, modu lasaian gauzatzeko. Azken finean, pixoihalaren aldaketaren barne kokatzen dira haurren konfiantza, autoestima, intimitatea, bere gorputzaren inguruko ezagutza...eta horregatik hezitzaileak ziurtasuna eman behar dizu.

Horren bidez, haurrek ulertuko dute modu horretan garbiak egongo direla, eta bere ongizatea horretan oinarritzen denez, ez dugu aldatzeko ezta momentu bat ere itxaron behar.

"C"-ren ustez, begirada da ere lehenengo erabiltzen den aspektua, geroago hurbildu eta ondoren hitzaren bidez egin behar dutena azaltzen diolarik. Behin umeak ulertu duen, kontaktu fisikoa sartzen da, haurra hartzen baitu, edo aldatzeko mahairuntz lagundu. Hitza erabiliko du egitekoa aurreratzeko zer etorriko den. Kontaktuari dagokionez, leuna eta hurbila izan behar du, eta begiradaren garrantzia azpimarratzen du, horren bidez sortzen den komunikazioa dela eta. Autonomiari dagokionez, hori sustatzen dutela esaten du, eta asko garatzen dutela, pixoihalaren aldaketan parte hartze handia eginez. Hori sustatzeko hitza erabiltzen du "C"-k, beraz, hitza bi modutan erabiltzen du: aurreratzeko eta parte hartzea sustatzeko.

Bukatzeko, lotura emozionalari dagokionez, garatzen joaten den zerbait bezala ulertzen du "C"-k. Haurrei berarekin joan nahi duten ala ez erabakitzeko aukera ematen die, eta esaten du polita dela konfiantza nola garatzen duten behatzea.

"B"-k diotenaren arabera, hitza oso garrantzitsua da, eta berak, "C"-k bezala, aurreratzeko eta azaltzeko erabiltzen du. Kontaktua fisikoa berarentzat, hitzez azaldu eta gero datorrena da, haurren parte hartzea bultzatuko duelarik, eta begirada bi horiekin erabiltzen den tresna izango da, haurrarekin erlazioa sakonduko duena, eta haurrak ulertzen zaituela adieraziko duena.

Autonomia lortzeko, hezitzaileak haurri parte hartzen utzi behar diola defendatzen du "B"-k. Horrela, pixoihalaren aldaketaren momentua askoz erosoagoa bihurtzen da bientzako, bestela borroka moduan egiten delako. Menpekotasunari dagokionez, "B"-k

autoritatea bezala ulertu zuen. Eta azaldu zuen berak muga batzuk argi jartzen dituela, adibidez, pixoihalaren aldaketa bukatu eta aldagailutik jaitsi behar bada haurra. Horrelakoetan, argi eta argi azaltzen dio haurrari, eta normalean honek berehala ulertzen du muga bat markatzen ari dela, eta errespetatzen du.

Lotura emozionala sortzerakoan begirada, eskua eta keinuen garrantzia azpimarratzen du. Horrekin lotuta, azaltzen du hitzaren nagusitasuna gehiegizkoa dela askotan, eta horregatik sortu zuten harrera garaian jarduteko beste modu bat. Isiltasunaren inguruko proiektua da, haurrak behatu eta haiekin komunikatzeko beste moduak bilatuz, hitza alde batera uzteko nahiarekin aurrera eraman dutena. "B"-k dio hitzik esan gabe elkar ulertze sakona lortu zutela.

Zazpigarren galderari dagokionez, "A"-k eta "C"-k zailtasun gehienak aspektu berberean ikusten dituzte. Hala nola, pixoihalaren aldaketa egin behar badute eta gainerako haurrak amorratuta, negarrez edo liskar batean murgilduta badaude (azken finean bere atentzioa behar dutenean) zaila egiten zaie egoera modu onean bideratzea. Momentu hori haurrarena eta hezitzailearena da bakarrik, eta oso garrantzitsua ikusten dute haurrak sentitzea berarekin zaudela, eta besteek ulertzea geroago izango dela haiekin egoteko momentua, baina itxaron behar dutela. Eta zaila da momentu horietan zure atentzioa pixoihalaren aldaketan zentratzea. "C"-k dio, horrekin batera, haurrak objektu batengan atentzioa jartzen badu zaila dela atentzioa berriz ere bereganatzea, edo haurra nekatua dagoenean, adibidez.

Aldiz, "B"-k beste aspektu batean ikusten du zailtasun handiena. Hala nola, pixoihalaren aldaketa egin behar baduzu eta haurrak ezetz esaten badu, zaila da autoritateaz jokatu gabe egitea, edo ahalik eta gutxien erabiltzen. Azken finean, mugak jartzea eta ezetza ematea zaila suerta daiteke, eta gehien bat umeek bere gurasoekin duten erlazio eta hezkuntza ezberdinak direla eta.

Zortzigarren galderari erantzuteko hiru hezitzaileek pixoihalaren aldaketa egiteko zer haur aukeratuko zituzten esan behar zidaten. Horretarako, haien artean oso ezberdinak ziren haurrak aukeratu dituzte, aspektu ezberdinen arabera: sexua, adina, lotura, komunikazioa, umeen parte hartzea, konfiantza, oposizioa, mugitzeko gaitasunak, menpekotasuna, etab. Horrela, haur bakoitzaren erritmo, aukera eta ezaugarri ezberdinak behatu ahal izan nituen.

Koreografia eta dantza: pixoihalaren aldaketa haur eskolan

4.2. Behaketa zuzena: bideo eta argazkien analisisa 4.2

Hurrengo puntu hau garatzeko, lehen esan bezala galdera eta irizpide edo pautak batzuk proposatu ditut, taula batean zehaztutakoak, metodo eta materialen esparruan kokatu dudalarik. Ondoren 6 pixoihalen aldaketen behaketan ikusitakoa azalduko dut, taulan oinarrituz interpretazioak eginez, eta sortzen zaizkidan galderak kokatuz, zehaztutako 5 esparruen artean bananduz.

Behaketa zuzena: interpretazioak eta bestelako galderak:

“A”-k aurrera eramandako pixoihalen aldaketetan (“a” eta “b” haurrak) behatutakoa eta horren inguruko interpretazio eta galderak:

1. ANTOLAKUNTZA

Antolakuntzarekin hasteko, aldagailua nahiko sakona da. Horrek eragiten du haurra paretaraino joaten bada hezitzailea ez dela ailegatzen. Hori gertatu zitzaion, hain zuzen ere, “B”-ri. Bestalde, polita iruditu zitzaidan bi aldagailu egotea, eta haurrek erabakitze aukera izatea. Horrekin batera, aldagailura igotzeko eskailera txiki batzuk daude, eta ikusitako aldaketa guztietan haurrak haien kabuz igotzen ziren. Autonomia eta haurraren mugimendu eta parte hartze aktiboa sustatzeko modu ona dela uste dut. Gehien bat katuka ibiltzen direnak ere horretarako aukera dutelako, nahiz eta nik ez nuen hori ikusteko aukerarik izan.

Horretaz gain, harresiak ez zeudela komentatu dut aurretik. Nahiko desegokia iruditzen zait, objektu hori haurren mugimendu eta jarrera aldaketak baimendu eta sustatzeko egokia delako. Gainera arriskutsua izan daiteke noizbait, eta horrela izan zen pixoihal aldaketa batean. Hezitzaileak haurrari eskatu zion buelta emateko, eta horretan zegoenean aldagailutik erortzekotan egon zen. Hala ere ikusteko aukera izan nuen horrela ere ondo moldatzen zirela haien helburuak lortzeko, eta haurrak asko mugitu egiten ziren.

Aldagailuaren zoruari dagokionez, nahiko biguina zen, baina gogortasuna zeukan, eta garbitzeko erraza edo aproposa zela iruditu zitzaidan. Ondoan txorrota zuen, ume batzuen atentziora etengabe deitzen zuena.

Bukatzeko, inguruaren inguruan zertxobait komentatu nahiko nuke. Hasteko, aldatzeko gela nahiko banandua zegoen gela handitik, eta lasaia zen, nahiz eta momentu batzuetan bete zen. Horretaz gain esatea apal batzuk zeudela haur bakoitzaren tresnak gordetzeko. Egokia iruditzen zait hain hurbil izatea tresna guztiak, horiek ahazten badira hurbil izateko. Bestalde, beste aldatzeko mahai bat zegoen baxuago, non beste aldagailuak betetzen baziren, hor jartzen zituzten haurrak, horretan zutik egon behar zirelarik. Ez nuen bertan aldaketarik ikusi, proposatu zitzaion haur bakarrak ez zuelako onartu. Bukatzeko, kristal bat zuten aldatzeko mahaiak alde batean, eta bertatik gela nagusia ikus zitekeen. Horren egokitasuna ala desegokitasuna ez zait argi geratu. Hain zuzen ere, ispilua desegokia bada, haurren atentzioa desbideratzen duelako, ez al da desegokia izango kristal bat izateak ere?

Denborari dagokionez, "A"-ren kasuan behatutakoa azalduko edota interpretatuko dut jarraian. "a"-ren pixoihalaren aldaketan, haurrak ez du kasu handirik egiten, krema potea hartu eta horri begira dagoelako. Hasteko, etortzeko eskutik helduta ekarri du. Aldatzeko mahaira igotzeko ez dio presiorik egiten, ezta "b"-ren pixoihala aldatzeko ere. Igotzeko esaten die, baina haien abiadura errespetatzen du.

Pixoihalaren aldaketan zehar, "a" kremarekin dago denbora gehiena, eta ez du bere atentzioa lortzen bereganatzen, nahiz eta saiatu. Bere denbora ematen saiatzen da, baina "a"-k kasu egiten ez dionez, azkenean mugimenduak eginarazten dio, "a"-ren erritmoa bizkortuz. Adibidez, esertzea eskatzen dio, eta kasurik egiten ez dionez, "A"-k esertzen du. Edo esaten dio: "ale, zoaz." Eta pixka bat ukitzen du, aurreraka eginez. Ez denez mugitzen, begirada bilatzen du, eta orduan mugitu egiten du.

"b"-ren kasuan, aldiz, aldaketan parte handia hartzen du, eta horrek ekartzen du "A"-k bere erritmoa errespetatzea. Mugimenduak bere kabuz egiten dituenez, haurren erritmoa errespetatzen dela uste dut.

Oro har, momentu lasaia dela ematen du. Nahiz eta "a"-ren nahia (krema begiratzea) ez den lortzen, irribarrezka eta erlaxatua dagoela ematen du. "A" "a"-rekin gehiago larritu dela ematen du, "b"-rekin baino.

Denboraren inguruan esan dudana gain, ikusi dudanez pixoihalaren aldaketa banan-banan egiten da, nahiz eta bazkaldu eta gero haur guztiak aldatzen diren. Horrekin

batera, "A"-k pixoihalaren aldaketa baino lehen prest ditu erabili behar dituen gauzak, eta horrela ez du haurra aldatzeko mahaian utzi behar gauzen bila joateko.

2. KOMUNIKAZIOA ETA KOMUNIKATZEKO OZTOPOAK.

Hasteko, heldu eta haurraren arteko erosotasun, erlazio afektiboa eta intimitatea hiruek ("A"-k eta bi haurrek) duten gorputz jarreran antzematen da, erlaxatua eta ziurra ematen duelako. Bestalde, begirada trukeak askotan ematen dira bi haurrekin, eta irribarre asko egiten dituzte. Gainera, "b"-ren kasuan hitzez gauzak adierazten saiatzen da, helduarekin komunikatuz. Ibairen kasuan, atentzioa esan bezala krematu zuten, eta horrek bien arteko komunikazioan eragin izugarria izan duela ematen du.

Bigarren galderari erantzunez, "a"-k ez dio adierazi "A"-ri kaka zuela, "A"-k hartu eta eramane du. Aldiz, "b"-k "kaka" esan dio "A"-ri, argi eta garbi, pixoihala aldatzeko, eta begirada eta keinuz ere adierazi dio. Horretan ikusten da haurrak konfiantza duela "A"-k hobe sentiaraziko diola.

Aldagailuan zeudenean, estimulu batzuk zituzten haurrek inguruan. Alde batetik, beste gelakideak hortik zebilen, momentu batzuetan arreta deitu diena. Eta baita beste gauza batzuk ere. Esan bezala, "a" kremarekin egon da ia aldaketa osoan, eta horrek komunikazioa oztopatu duela argi geratu zait. Bestalde, "b" ispilura begira geratu da momentu batzuetan, gorputz atalak behatuz. Hala ere, "A"-k segituan bereganatu du haren atentzioa. Kontu honekin sortzen zaidan galdera da: Zer da garrantzitsuago, bere burua ispiluan islatua ikusi eta horren inguruko esperimendua egin, ala ispilua kentzea, komunikazioa oztopatzen duelakoan?

2.4. galderak hezitzailearen hitzari egiten dio erreferentzia. Hasteko, "A"-k egiten ari dena azaltzeko erabiltzen du ("botoi bat, bi...", "Hori da...", etab.) Ondoren, aurreratzeko erabili du momentu batzuetan: "Kenduko dituzu prakak...". "a"-ren aldaketa erabili du atentzioa deitzeko, eta haurrak zituen sentazioei hitza jartzeko: "Despistatua zaude kremarekin..." etab. Horrekin batera, aldaketa edo haurraren mugimenduei adorea eman edo bizkortzeko erabili ditu: "Ale, igo" edo "benga, jaitsi". Bestalde, haurrari galdetzeko erabiltzen du, berak erabakitzeko: "Non jarriko zara, hemen ala hemen?", edota jolasteko: "Ze handia zaren horrela, ezta?". Bukatzeko,

hitzeko errefortzua maiz erabiltzen du “A”-k, oso ongi, ederki edo primeran bezalako formulekin.

Isiltasunei dagokionez, zerbait esan eta umeez ulertzeko denbora ematen die “A”-k, eta ez badute jaramonik egiten, begietara begiratzen ditu, baina etengabe errepikatu gabe. Isiltasuneko momentu asko daude, beraz, oso garrantzitsua iruditzen zaidana.

2.5. galderari dagokionez, lengoaia sinple, argia eta zehatza erabiltzen du. Esaldi gehienak sinpleak dira, baina konplexuak ere erabiltzen ditu. “Infantilismorik” ez du erabiltzen. Tonua lasaia eta baxua da, leuna.

Horretaz gain, haurrari zuzentzerako orduan, gehiena proposatuz egiten du: “kenduko ditugu, ados?”, “Eseriko zara?”, “Gora orain, zutik?”. Baieztapenak edo ezeztapenak ere egiten ditu, (“eseri”, “behera”, “ale zoaz”, “ez, orain bazkaltzera.”) Beraz, antzeman daiteke muga argi batzuk dituela, eta haurrak onartu behar ditu, baina beste askotan haurraren baietza ala ezezaren zain egoten da.

Multzo horretako seigarren galderari erantzunez, bi haur hauek ia ez dute hitzik erabiltzen, eta komunikazioa bere begirada, keinu eta mugimenduetan bilatu behar da, argi eta garbi gauzak adierazten dituztelako. Biek hitza erabili dutenean izan da objektu edo gertaera bat izendatzeko, eta oso gutxitan, besterik ez: “Kaka, prakak.” Hori bai, komunikatzeko asmo osoarekin egin dute.

Pixoihalaren aldaketarako deitzeko haurraren gana hurbildu, makurtu eta kaka dutela esan die, argi eta garbi. Sorpresa hartu dut, alde batetik oso lasai eta pozik joan direlako, erresistentzia egin gabe, eta bestalde, “b”-k berak komunikatu duelako kaka zuela.

“A”-ren mugimenduei dagokionez, lasaiak eta ziurrak direla esango nuke, mekanikoak bihurtu gabe. Haurra mugitu nahi badu utzi egiten dio, hori errespetatuz. Gainera, bere keinuak begirada eta hitzekin konbinatzen ditu etengabe. Bestalde, pixoihalaren aldaketako momentu batzuetan haurra mugitu egin du beste gauza batean zuelako zentratua atentzioa. Nire ustez, honen inguruan hurrengo galdera planteatu daiteke: nahiz eta ordutegi baten menpe bizi garen, beharrezkoa edo egokia da haurrak egiten ari ez diren mugimenduak gauzatzea?

Bestalde, begiradari dagokionez, hezitzaileak komunikatzeko modua bezala erabiltzen duela argi dago. Haurren atentzioa deitu, berarekin ari dela transmititzea, lasaitasuna eman eta parte hartzea sustatu eta ziurtatzea bilatzen du. Gehien bat, haurra hartzaile hutsa bezala tratatzea deuseztatzen du, etengabe bere parte hartzea bilatzen duelako begiradaren bidez. Bitartean, eta 2.11. galderari erantzuteko, “b”-k kontaktu bisuala mantentzen du ia etengabe, bere pixoihalaren aldaketako parte izanez, eta komunikazioa bermatuz. Aldiz “a”-k gutxi batzuetan begiratzen du “A”, eta begiratzen duenean gehien bat jolas moduan egiten duela ematen du. Askotan ez du aldaketan atentzioa zentratzen, eta komunikazioaren atal handia galtzen da horrela.

3. HAURRAREN GORPUTZ JARRERA ETA GORPUTZAREN MUGIMENDUAK:

3.1 galderakoa aztertzerakoan, “A”-k gorputz jarrera irekia eta lasaia duela esango nuke. “a” eta “b”-rengandik hurbil dago, baina gorputza distantzia batera mantentzen du, haurrak mugimenduak gauzatzeko. Nahiz eta pixoihalaren aldaketako mugimenduak ikasita baino gehiago izango dituen, haurren mugimendu askeak eta berak hasitakoak jarraitzen ditu, berarentzat eroso dena inposatzen saiatu gabe. Hala ere, nahiz eta saiatu, batzuetan mugimenduak eginarazi egiten ditu, gehien bat komunikatzeko zailtasunak izaten ari den “a”rekin.

“a”-ren gorputz jarreraren kasuan (3.2), zutik eta oinez igotzen da aldatzeko mahaira. Eta egiten dituen mugimenduak seinalatzeko eta igotzerakoan mantentzeko izaten dira. Ondoren, “A”-k hartu eta eseri egiten du, alde egin behar zuelako. Horretan krema hartu eta mugitzen du eta zapata kentzen du. Ondoren, “A”-k berriz ere zutitu egiten du, eta kremarekin aritzen da. Horretan dagoenean, “A”-k esertzen du eta krema kentzen dionean, prakak jaisten ditu, berriz ere krema hartuz. Hurrengo gorputz jarrera zutik da, eta “A”-k kokatzen du horretan, eta gero etzan, “a”-k hankak gora makurtzen dituelarik. Pixoihala aldatzerakoan, esku eta hankak mugitzen ditu, baina ez du ematen laguntzeko egiten duelarik, baizik eta inertziak. “A”-k esertzeko eskatzerakoan, bira ematen saiatzen da, eta “A”-k laguntzen du esertzen. Eserita dagoenean, jolasteko mugimenduak egiten ditu eskuekin, eta prakak igotzen saiatzen da momentu batez, nahiz eta ez lortu. “A”-k orduan zutitu eta prakak lotzen dio. “A”-k

jaisteko eskatzen dionean, makurtu, oin bat lehenengo eta gorputza ondoren jaitsi egiten du, eta oinez doa aldagailutik behera.

“b”-ren kasuan, oinez joan, eta belaun bat igoz gorputz osoa igotzen du, eskuekin lagunduz. Behin aldagailuan dagoela, eseri egiten da, eta eskatzerakoan etzan egiten da prakak kentzeko (“A”-ren laguntzaz), eta hankak mugitzen ditu pixoihalaren aldaketan laguntzeko helburuarekin zalantzarik gabe. Geroago, besoak luzatu, eta burua makurtuz beste besoarekin kamiseta kentzen saiatzen da. Garbia jartzerakoan ere, besoak luzatzen ditu zulotik sartzerakoan.

Beraz, bi haur hauen arteko ezberdintasuna handia da, gaitasun berberarekin batek parte hartu eta mugimendu eta jarrerak bere kabuz egiten dituelako, eta besteak aldiz, ez. Hau izango da batekin komunikazioa ez delako ia-ia egon, beste gauza batetan zegoelako, harremana ezberdina delako, etxean ezberdin egiten dutelako, hezitzailearen araberakoa delako...? Edo, oro har, zergatik izan daiteke?

Esparru honekin bukatzeko, lekualdaketak oinez egiten dituzte hurrek, dagoeneko denek dakitelako, eta ez dakit besteekin nola egiten duten. Antzeman dudana da hezitzailea “a”-rekin eskutik etorri zela eta “b”-rekin ez. Zergatik izango da (“a”-k bultzada handiagoa behar duelako, kontaktu fisikoa beharrezkoa delako, etb.)?

4. EKINTZA EZ-KOMUNIKATIBOAK

Honi dagokionez, ekintza berberak gauzatu zituzten hiru hezitzaileek. Hortaz, behin bakarrik azalduko ditut. Hasteko, pixoihal zikina, arropa, eta oro har, erabiltzen zuten oro txorrotako kutxara sartzen zuten. Arropa zikina balego, hori aldatu eta poltsa batean sartzen zuten, etxean gurasoek garbitzeko. Bestalde, pixoihal zikina zakarrontzira botatzen zuten, toailatxoekin batera, haurrak alde egiten zuenean, elkarriketa momentuan ez gelditzeko. Eskuei dagokionez, garbitzen ikusi nituen, baina gehien bat eskularruak erabili eta geroago botatzen zituzten, beste gauzekin batera.

5. AUTONOMIA/MENPEKOTASUNA:

Bi aldaketa hauek oso ezaugarri ezberdinak izan zituzten, orain arte aipatutako guztia dela eta. Ibairen kasuan, ez zuen askatasunezko jarrerarik izan, eta egindako mugimenduak ez ziren “A”-ri laguntzeko izan, pixoihalaren aldaketan parte hartzeko, Koreografia eta dantza: pixoihalaren aldaketa haur eskolan

alegia. Beraz, kasu honetan autonomia eta menpekotasunaren arteko erlazioa zaila da ikusten, komunikazio falta egon zelako. Hortaz, gehien bat hezitzailearen menpe egon zen “a”. Honekin galdera bat aurkeztu nahiko nuke: Zer da hobe; haurra errespetatzea beste interes bat duenean, eta hezitzaileak egitea aldaketa berarekin interakzioa izaten saiatuz, ala kontrakoa, interesa duen objektu hori kendu eta parte hartzea derrigortzea?

Esan bezala, “a”-ren parte hartzea eskasa izan da, eta “A”-k etengabe azalpenak eta eskaerak egiten egon behar izan du, erantzun handirik jaso gabe. Beraz, menpekotasuna momentu horietan ikus dezakegu, haurraren mugimenduak ez direnean askeak. Autonomia ikus dezakegu galtzerdia kentzeko saiakerak egin dituenen, bere kabuz aldagailura igo denean, bira ematen saiatu denean, hitz batzuk esan dituenen eta bere kabuz jaitsi denean.

Bestalde, “b”-ren kasuan mugimendu eta jarrerak askoz askeagoak izan dira, komunikazio egoera sakon batean zeudelarik murgilduta. Horrela, “b” bere kabuz igo, jaitsi eta aldaketan lagundu du mugimendu askeen bidez, “A”-rekin elkarlanean, lehen azaldu bezala. Autonomia ikus dezakegu, hain zuzen, mugimendu aske horietan, konfiantza eta segurtasunezko giro batean egiten direnak. Horretaz gain, jarduera autonomoa da, nire ustez, nola eskatzen duen pixoihalaren aldaketa, hezitzaileari adieraziz. Horri kontrajarriz, menpekotasuna ikus daiteke “A”-k jarreraz aldatzen duelako momentu batean.

Bukatzeko, iruditzen zait “b”-ren kasuan menpekotasun eta autonomiaren arteko oreka ikusten dela. “A” beti bere ondoan dago, behar duen bultzadatxo emanaz, baina bera pixoihalaren aldaketaren prozesua protagonista aktiboaren papera hartu eta elkarreraginean aritu da etengabe. Gainera, “A”-k bakarrik egindako jardueretan (pixoihala lotu, adibidez) begiradarekin jarraitzen zuen, paper aktibo hori galdu gabe.

“B”-ek aurrera eramandako pixoihalaren aldaketan (c eta d izendatutako haurrak) behatutakoa eta horren inguruko interpretazio eta galderak:

“B” izendatutako hezitzaileak aurrera eramandako bi aldaketak ere oso ezberdinak izan ziren haien artean. “c” eta “d”-ren pixoihalaren aldaketaren deskripzio eta

interpretazioak egingo ditut ondoren, kontuan hartuz “c”-k parte hartze handia izan zuela, eta “d”-k aldiz, komunikazioan ia-ia parte hartu ez zuela.

1. ANTOLAKUNTZA

Denborari dagokionez, “c”-ren kasuan bere erritmoa asko errespetatu zuela uste dut. Aldagailura bere kabuz igo eta jarduera askotan parte hartu zuen, zapatak eta galtzerdiak kenduz, edo hankak prakan sartuz, adibidez. Horietan “B” bere zain egon zen, laguntza behar izanez gero lagunduz. Hala ere, komentatzekoa da “c”-ren atentzioa horretan zegoela, eta bat-batean beste zerbaitekin hasten bazen, “B”-k deitu egiten zuela, pasibotasuna deuseztatuz. Momentu batean “b” altxatu eta bira ematen du leihotik begiratzeko. Orduan “B” zain egoten da hasieran, bere izenaz deituz, denbora emanez. Ikusten duenean bere kabuz ez duela bira eman nahi, orduan hartu eta berak etzan egiten du, baina haurrari denbora ematen dio bere kabuz egiteko.

Denbora edo erritmoari dagokionez, lasaia eta motela dela ematen du. Ez da asko luzatzen, baina umearen erritmo, nahi, eta denbora errespetatzen dela argi ikusten dut, bere parte hartzea etengabe eskatzen duelarik “B”-k.

“d”-ren kasuan, denboraren kontua aldatu egiten da. “B”-k etengabe eskatzen du bere parte hartzea. Zapatak eta galtzerdiak berak kendu zituen, eta “B”-k bere abiadura errespetatu zuen. Hala ere, pixoihalaren aldaketa osoan zehar txorrotan izan zuen bere atentzioa jarrita, eta horrek asko zaildu zuen komunikazioa eta parte hartzea. Horrela, hezitzaileak eraman zuen aurrera aldaketa, “d”-ren nahiei erantzuna eman gabe. Hortaz, niretzat beharrezkoa da planteatzea: Zer egin haurrak ez duenean aldaketan parte hartu nahi, adi dagoelako beste gauza bati; erritmoa, denbora edota nahia errespetatu, edo helduak aldaketa egin, haurraren parte hartzea gabe? Azken finean, aldaketa egitea beharrezkoa da, eta egia da ordutegi baten menpe bizi garela, eta hezitzaileek beste haur asko dituzte inguruan, gainera.

1.4. galderari erantzunez, “d”-ren kasuan tresnak prest ditu aldaketarekin hasi baino lehen, aldagailuan. Aldiz, “c”-ren aldaketarako tresnak hartu ditu behin “c”-k aldagailuaren gainean zegoenean. Hori arriskutsua izan daiteke, aldagailuak harresirik ez duelako. Hala ere, suposatzen dut normalean prest dituela, eta horretan ahaztu izan zuela.

2. KOMUNIKAZIOA ETA KOMUNIKATZEKO OZTOPOAK

“c”-ren kasuan, heldua eta bere arteko erlazio afektiboa keinuetan (gehien bat ukitzen duelako eta irribarre egin) eta daukan hitz jarioan antzematen da. Etengabe saiatzen da “B”-rekin komunikatzen, eta oso irribarretsu eta lasai dago. “d”-ren kasuan, erlazioa behatzea zailagoa da, komunikazioan parte gutxi hartu duelako. Gutxi begiratzen du, ez du hitz egiten, eta keinu gutxi erabiltzen ditu komunikaziorako. Azpimarragarria da bien artean dagoen aldea, bata pixoihalaren aldaketan parte hartzen duelako, eta besteak oso gutxi, eta nahiz eta hori egin, ez du bilatzen hezitzailearekin elkarlana.

Bestalde, 2.2 galderari dagokionez, bi haur hauek ez dute pixoihala aldatzeko seinalerik bidali. Biak “B”-ek deitu ditu, eta biek zuten kaka. Arraroa egiten zait zergatik gertatzen den hori, zergatik ume batzuek eskatzen duten eta beste batzuek ez.

Komunikatzeko oztopoei dagokionez, pixoihalaren aldaketa hauetan oso nabaria izan da gainerako estimuluen garrantzia komunikazioari dagokionez. “c”-ren kasuan, oztopoak izan dira pixoihala aldatzeko aldagailuaren ondoan dagoen kristala, beste haurrei begira egon delako, eta gelara sartu den haurren bat. “d”-ren kasuan, esan bezala, larriagoa izan da, txorrotak bere atentzio guztia bereganatu duelako aldaketa osoan zehar, elkarlana deuseztatuz. Honen inguruan nire galdera litzateke: zer da hobe, “d”-ren kasuan adibidez, inolako estimulurik ez izatea, hala horiek daudela errespetatu eta komunikazioa mantsotu, haurraren interesak errespetatuz? Eta “d”-ren kasuan, hobe da onartzea komunikazioan parte hartu nahi ez duela, eta hezitzaileak egitea gehiena, edo muga argiak ezartzea dialogo hori gauzatu ahal izateko?

